

## Amaia Araujori laguntzeko elkartasun kanpaina erantzun zabala izaten ari da

**Zornotza** • Amaia Araujo ume zornotzarrak gaixotasun arraro bi ditu. Haren familia eta lagunak ekarpenak jasozten dabilta zozketa erraldoi bat egin eta diru funtsekin terapia ordaintzen laguntzeko. • 11



## Durangaldeko pentsiodunen mugimenduak bost urte



Durangaldeko pentsiodunen mugimendua mobilizatzen hasi zenetik bost urte igaro dira. Lorpen garrantzitsuen gainetik, lanean jarraitzeko eta beste eragileekin elkarlanean ekiteko momentua dela nabarmendu dute. • 2-3

## Errefuxiatu sahararrei laguntzeko Karabana Solidarioa, martxan

**Durangaldea** • Río de Oro elkarteak elikagai bilketa egiten hasi da sahararrei laguntzeko. Dohaintzak Durangaldeko hainbat puntutan zein bizum bidez egin daitezke. Mikel Del Arco arduradunak xehetasunak eman ditu. • 5

### IURRETAKO HEZKUNTZA eremua

Olaburu auzunea, IURRETA

—AURREMATRIKULAZIOA—  
Otsailaren 13tik 24ra arte

- Gune egokia.
- Jantokia eta garraioa.
- Irakasle euskaldunak, finkoak eta esperientziadunak.
- Zuen seme-alabek euskaraz egin ditzakete unibertsiitate aurreko ikasketa guztiak lurretan.

MAIZTEGI  
946 810 937

OROBIOGOITIA  
944 288 000



**2-12 urte**  
MAIZTEGI  
HH eta LH



**12-18 urte**  
OROBIOGOITIA DBH eta  
Batxilergoa



## "Pentsioen erreforma bat gainean daukagu. Jendea esnatu egin behar da"

Durungaldeko pentsiodunen mugimenduko ordezkariak bost urteko ibilbidearen balorazioa egin dute

**DURANGALDEA** • JONE GUENETXEA

Orain bost urte, pentsiodunen mugimendua sortzen zebilela, ANBOTOK Durungaldeko ordezkariak elkarriketatu zituen. Harrezkero, kolektiboak lorpen garrantzitsuak izan ditu. Hala ere, argi dute mobilizazioa dela bide bakarra aldarrikapen asko errealitate bihurtzeko. Astelehenero, Durangoko, Elorrioko, Iurretako, Zaldibarko, Berrizko eta Zornotzako elkarretarazteetan pankartaren atzean egoten jarraituko dutela diote. Bost urte geroago egindako solasaldian, Jesus Aristegi Larrañaga (Bergara, 1955), Mariapi Mintegi Zuazo (Iurreta, 1945) Matias Oregi Arregi (Berriz, 1945), Mari Tere Alberdi Olabegoia (Berriz, 1944) eta

Itziar Madariaga Bilbao (Zornotza, 1944) batu dira berriro, pentsiodunen kolektiboaren aldarriei buruz gogoeta egiteko.

**Pentsiodunen mugimendua bost urte egin ditu. Zein balorazio egiten duzue?**  
Jesus Aristegi: Balorazio oso positiboa eta aberasgarria da. Lehenengo eta behin, gure mugimendua heterogeneoa da. Hemen ez dago siglarik. Eskaera zehatz batzuk daude, Europako Karta Soziala, eta, horregaitik, gure oinarria mundu guztia da. Pentsio duinak, soldata duinak, zaintza duina eta osasungintza duina eskatzen ditugu. Bestalde, mugimendua Euskal Herrian sortu

da eta estatu osoan zabaldu da. Alde horretatik, aitzindariak gara. Gizartea atomizatu egin den arren, gu hor gaude astelehenero-astelehenero.

**Matias Oregi:** Honek hasiera bat dauka. 2008ko krisi ekonomikoaren ondoren murrizketa sozialak egin ziren. Pentsioetan erreforma bi egin ziren, Zapaterorena 2011n eta Rajoyrena 2013an.

**Itziar Madariaga:** Gogoratu behar dugun beste momentu bat Fátima Bañezek pentsioen 0,25eko igoera iragartzen zuen gutun famatuaren unea izan zen. Gutuna bidaltzea bera pentsioen igoera baino garestiagoa izan zen.

**Herri ekimenetik sorturiko mugimendua zarete.**

**M.O.:** Bakoitza bere herrian lanean zebilen eta bizi genuen egoerak elkartu egin gintuen. Hurrengo pausoa Durungaldeko koordinadora bat sortzea izan zen. ANBOTO gure berri eman zuen lehenengo hedabideetarikoa izan zen.

**I.M.:** Horren ondoren, Bizkaiko Pentsiodunen Mugimendua egin genuen. Hortxe hasi ginen mugimendua gorpuzten. Araban, Gipuzkoan eta Nafarroan ere bai. Koordinadora bat sortu zen eta estatuko taldeek ere parte hartzen dute. Estatuan erreferenteak gara.

**Zeintzuk dira egiten dituzuen aldarrikapenak?**

**M.O.:** KPI igoera erreala eskatzen hasi ginen. Baina horrek beste hainbat aldarrikapen mahaigaineratzea eragin zuen. Gure aldarrikapen zentralak adosteko gai izan ginen. Gutxieneko pentsioa 1.080 euro izatea eskatzen hasi ginen, beste hainbat aldarrikapenen artean: lanbide arteko gutxieneko soldata 1.200ekoa izatea, 40 urteko kotizazioa duen aurre jubilatuari zigorrak ez ipintzea...

**Pentsiodunen artean kasuistika zabalduzue. Alargunen eskubideak defendatu dituzue.**

**I.M.:** Alargunok senarraren pentsioaren %52 kobratzen genuen. Kostata, baina %60ra igotzea lortu genuen. Baina batzuek uste dute denok kobratzen dugula horrela, eta ez da horrela. Zuk pentsio bat baduzu, zeozer kotizatu duzulako, txikia izan arren, %52gaz jarraitzen duzu. %60ko igoera ez da denontzat izan.

**Mariapi Mintegi:** Jendea egoera azaltzea izan da inportanteena. Batez ere, emakume eta alargunei. Askok ez dute pentsioen inguruan ezer jakin. Kontzientzia berri bat loratu da.

**Zeintzuk izan dira lorpenak?**

**M.O.:** 2018an 0,25eko igoera bertan

behera utzi zuten eta KPI igoeraren arabera igo ziren pentsioak. Akordio bat egin zuten eta pentsioen sostenibilitate plana ere martxan ipini gura zuten. Momentu hartan Rajoy zegoen eta pentsioak murriztu gura zituzten. 2022an eta 2023an KPI medio bat igo dute eta ez gaude ados. Horretarako, sinadura bilketa egin genuen. Azken bost urteetan Europara eta Kongresura ere joan gara, baita Gasteizera ere. Izan ere, pentsioak Madrilan daude, baina EAEko eta Nafarroako gobernuek eskumena dute pentsioak osatzeko. EAEn kalkulatu da pentsiodunen %40 1.000 eurotik behera dagoela. 1.080 euroko pentsioa eskatzen dugu, baina 14 pagatan. Bestela, ia 3.000 euroko aldea dago.

**J.A.:** Europan eta estatuan bada go arazo larri bat: pribatizazioa. Horregaitik, gure mugimendua garrantzitsua da. Guk arlo publikoa defendatzen dugu.

**Frantzia gertatzen dabilena gertutik jarraitzen zabilzate?**

**M.M.:** Frantzia jubilazioa 62 urtetik 64ra igo gura dute eta Macronen legearen kontra gazteak mugitzen dabilzala ikusten dugu. Hemen 65etik 67ra igo gura dute eta jendea ez da kalera irten.

**M.O.:** Frantzia sindikatu nagusiak borrokan irten dira. Eta estatu mai-

lan sindikatu nagusiak akordioak egiten dabilta gobernuagaz, hori nabarmena da. Bestalde, Frantzia bigarren greban jende gehiagok parte hartu du. 2,8 milioi pertsona mobilizatu ziren. Guk iparraldekoekin kontaktua daukagu. Lehenengo greban, Baionan, 10.000 lagun batu ziren manifestazioan, eta bertan egindako handiena izan zen. Bigarrenean, 17.000 pertsona batu ziren. Gure delegazio bat ere mobilizazio horietan egon zen. Hartu-emanak landu gura ditugu Euskal Herrian.

#### Gizartean badago pentsioen inguruan borrokatzeko gogoia?

**J.A.:** Pentsioen erreforma bat gainean daukagu, ez baitute bertan behera utzi. Jendea esnatu egin behar da. Pandemiak kalte handia egin digu. Kapitalismoa indartu egin da. Hemengo sindikatuen garrantzia azpimarratu gura nuke. Sindikatuek euren arazoak dituzte. Ez da gauza bera orain 20-30 urte zegoen kontzientzia. Gaur egun gizartea apalagoa da, baina buelta eman behar zaio horri.

**M.O.:** Baina gauza batzuk lortzeko beste eragile batzuen beharra dugu.

**Mari Tere Alberdi:** Mugimendu honek mugitzen gabiltzan gehienok pentsio duinak ditugu. Gurea egin da dugu. Belaunaldi berrientzat ere ari gara lanean.

**M.O.:** Eta guretzat ere bai. Nik neurere KPI igotzea gura dut. Eta gero, dirua sobran badaukat eta eman gura badut, hori beste kontu bat da. Pentsio duinak esaten dugu, baina gu ez gara aberatsak.

#### Zeintzuk dira hurrengo mobilizazioak?

**I.M.:** Martxoaren 13tik 18ra itxialdi bat egingo dugu Bilbon. 30 bat lagun txandaka elkartuko gara, gose greban pentsiodunen aldarrikapenekin lotuta. Martxoaren 18an manifestazioa egingo dugu Bilbon. Eta astelehenetako elkarretaratzeak ere mantenduko ditugu.

#### Gizarteak baloratzen du urte hauetan egin duzun lan guztia?

**MT.A.:** Berrizen babes handia daukagu. Baina, aurrera egiteko, indar gehiago batu behar dugu.

**M.O.:** Badago errekonozimendu bat gizartean. Kanean egon izan ez bagina, gobernu honek ez zuen beste erabaki bat hartuko? Gure arerioak beti daude hor, eta oso indartsuak dira.

**M.M.:** Gu ahaldundu egin gara, baina batzuetan pena ematen dit elkarretaratzeetan jende gehiago ez batzea.

**J.A.:** Gurea herriaren aldeko mugimendua dela esatea gustatuko litzaidake, eta denon alde egiten dugula. Jende askoren falta sumatzen dut, ezkerreko aldarrikapenetan ikusi izan dudana jendearena.



Durungaldeko pentsiodunen mugimenduak 2022an antolatutako bizikleta martxaren aurkezpena.



Durungaldeko pentsiodunak iaz Madrilan egindako mobilizazio batean.

**BETI GERTU!**

**ELORRIORA**

**HEMENDIK**

Begiratu aukerak gure webgunean:  
[www.zarateyelexpe.com](http://www.zarateyelexpe.com)  
Tel.: 946 816 673  
Bixente Kapanaga 19, beh. 48215, Iurreta

## Durango ospitale bat eraikitzeko aukerak ez du babes nahikorik izan Osasun Sailean

**DURANGO • A.M. / E.H.**

Durango eta Durangaldeko osasun beharriaz buruzko eztabaidak beste bira bat izan du asteon. Eusko Jaurlaritzak Durango Udalari jakinarazi dio herrian ospitale bat egiteko proposamenak ez duela "babes nahikorik" izan Osasun Saileko eta Osakidetza arduradunen partetik. Horren aurrean, luze barik ailegatu dira arduradun politikoen erreakzioak. Durango gobernu taldeak

Jaurlaritzaren "konpromiso falta" nabarmendu du. "Pediatria falta" dagoela eta "Lehen Mailako Arreta txartzen" dabilela iritzi diote. Horrez gainera, "kezka" ikusten dute osasungintzaren gaia "hautakundeentzako testuinguruak kokatzea". EAJk, bere aldetik, orain hilabete batzuk aurkezturiko proposamenari eutsi dio berriro ere: tren geltoki zaharreko orubean Gaitasun Handiko Osasun Zentroa ipintzea, Gernika-Lumon dagoenaren pare-

koa. "Proiektu hori bideragarria, egingarria eta beharrezkoa" dela iritzi dio Mireia Elkoroiribe bozeramaileak. Are gehiago, "hori lortu arte" lanean jarraituko dutela iragarri dute. Mankomunitateak ere antzeko jarrera hartu du. EAJk proposaturiko proiektua "beharrezkotzat" jo du eta hura martxan ipintzea eskatu du.

Orain egun gutxi, Herriaren Eskubideak Tabiran ospitale bat egiteko ideia mahaigaineratu zuen. Jeltzaleek Gaitasun Handiko Osasun Zentroa eraikitzean egin dute azpimarra. Alderdi batak zein besteak "beharrezkotzat" jo dituzte proiektuok, baina kontua da, bien bitartean, Eusko Jaurlaritzak kaleratu barik daukala eskualderako osasun beharriaz buruzko diagnostikoa. Alderdiak informazio hori barik egin dituzte proposamenak. Diagnostiko horren harira, Mireia Elkoroiribe bozeramaile jeltzaleak eta Mankomunitateak txostena "lehenbailehen" aurkezte eskatu diote Eusko Jaurlaritzari. Orain aste bi, eskualdeko Elkarrekin Podemos taldeko kideek eskari bera egin zuten.



Usansoloko ospitalearen kanpoaldea.

## Perretxikoen katalogotik ateratako dirua, JAEDentzat

Errotari elkarteak perretxikoen katalogo berria kaleratu du. Aleak Dendak Bairen komertzioetan daude salgai

**DURANGO • EKAITZ HERRERA**

Urtero legez, Errotari mikologia elkarteak Durango perretxiko eta ondoen katalogoa kaleratu du. Aurtengo edizioa berezia da, aleak Dendak Bain esku hartzen duten komertzioetan salduko direlako. Salmentetatik lorturiko etekinak JAED elkarteari emango dizkiote. Alde horretatik, Estibaliz Zurikarai JAED elkartearen presidentea eskerrak eman dizkie Errotari kideei.

Argitalpenean, Durango lurretan topatu daitezkeen 50 bat perretxikoren informazioa batu dute. Perretxiko bakoitzaren fitxan, bakoitzaren kokalekua eta bakoitzaren ezaugarriak kontsultatu daitezke. Liburuxka 10 euroan ipini dute salgai. Argitalpena Durango Udalak finantzatu du. Juanan Bueno zinegotziak elkartearen arteko lankidetzara goraipatu du.



JAED, Errotari eta Dendak Bai elkarteetako kideak, udal agintariekin.

## Euskal Telebistako 'Herri txiki, infernu handi' saio arrakastatsua Tabirara ailegatu da

Telebista saioko lantaldea martitzenean egon zen Tabiran filmatzen. Datorren egunean, asteon filmaturikoa eskainiko dute Tabirako auzotarren aurrean

**DURANGO • EKAITZ HERRERA**

Euskal Telebistako 'Herri txiki, infernu handi' saio arrakastatsua atal bat eskainiko dio Durango Tabira auzoari. Telebista saioko lantaldea martitzenean egon zen bertan filmatzen. Hamar egun barru, datorren egunean, asteon filmaturiko guztia eskainiko dute Tabirako auzotarren aurrean. Mikel Pagadizabal eta Miren Nogales aurkezleek bakarriketa saioa

eskainiko dute bertan. Telebista saioko kideek ez dute argitu Tabirako zein auzotar elkarrizketatu dituzten. Hori jakiteko, Euskal Telebistak saioa emititu arte itxaron beharko da. Dena dela, ANBOTOK saioari hasiera emango dion sekuentzia filmatzen harrapatu zuen lantaldea. San Pedro elizaren aurrealdean egin zuten grabazioa. Bide batez, Mikel Pagadizabal eta Miren Nogales aurkezleek esker

oneko mezua utzi dute hedabide honetako irakurleentzat. Bideoa [anboto.org](http://anboto.org) atarian dago ikusgai.

'Herritxiki' saioak bederatzigarren denboraldia du emisioan. Zuhaitz Gurrutxaga eta Mikel Pagadizabal izan dira aurkezleak lehengo zortzietan. Bederatzigarren honetan, Miren Nogales hartu du Gurrutxagaren lekukoa. Telebista saioko lantaldea hainbat bider egon da Durangaldean.



Tabirako elizaren aurrean filmatu zuten saioari hasiera emango dion sekuentzia.

**anboto** ▶

Bixente Kapanaga, 9  
48215 Iurreta - Bizkaia  
Tel.: 946 816 558

Erredakzioa: 946 232 523  
Publizitatea: 946 217 902  
publi@anboto.org

2023ko otsailaren 10a  
21. urtea - 924. alea

Lege gordailua:  
BI-2268/01  
ISSN:  
1578-7028  
Tirada:  
12.000 ale



**Bizkaia**  
foru aldundia  
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du

**EUSKO JAURLARITZA**

KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA



**GOBIERNO VASCO**

DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua

**DURANGO • EKAITZ HERRERA**

Río de Oro elkarteak karabana solidarioa ipini du martxan Saharako errefuxiatuen kanpamentuetara bidaltzeko. Durangaldeko hainbat lekutan elikagai bilketari ekin diote. Diru ekarpenak egiteko aukera ere badago. Mikel del Arco Río de Oro elkarteak arduraduna da.

**Zein egoera bizi dute Tindufeko kanpalekueetan?**

Herri sahararrak oso egoera gogorra bizi du errefuxiatuen kanpalekueetan orain 45 urte baino gehiagotik. Bizi diren lekuan ezin dira autosufizienteak izan eta laguntza humanitarioaren menpe daude. Laguntza hori geroago eta urriagoa da. Horregaitik, sasoi hain gogor honetan, karabana solidarioa errefortzu bat da saharar herriarentzat.

**Aurten kalitate handiko elikagaiak lehenetsiko dituzue.**

Orain arte bidali dugun trailerra Alacantetik Oranera (Aljeria) joan izan da. Aurten, arrazoi logistikoengaitik, ezingo dugu dimentsio handiko trailerrak eraman. Horregaitik, kamioi txikiagoa bidali beharko dugu. Pisu gutxiago garraiatu arren, daramagunak balio berdina edo handiagoa izatea gura genuke. Munduko Elikagaien Programako arduradu-

# "Sasoi hain gogor honetan, karabana solidarioa errefortzu bat da saharar herriarentzat"

Durangaldeko Río de Oro elkarteak elikagai bilketa egingo du karabana solidarioa Tindufeko errefuxiatuen kanpalekueetara helarazteko. Aurten, kalitate handiko elikagaiak eskatu dituzte. Bizum bidez ekarpen ekonomikoak ere egin daitezke

nekin berba eginda, balio nutrizional eta ekonomiko handiagoa duten elikagaiak batzea erabaki genuen.

**Logistikoki, zein bide egiten du kamioiak?**

Oranera helduta, Fronte polisiarioaren esku geratzen da. Handik Tindufeko kanpalekueetara eramaten dute. Bertan, Ilargi Erdi Gorria erakunde sahararrak antolatzen

**Gatazka politikoa konpondu arte, saharar herriaren aldeko mugimenduak laguntzen jarraituko du**

du banaketa guztia. Modu ekitatiboan egiten dute, kolektibo zaurgarriak kontuan izanda.

**Aurtengo kanpainari dagokionez, elikagaienaz gainera kanpaina ekonomikoa ere martxan ipini duzue.**

Pandemian Bizum bidezko ekarpenak egiten hasi ginen, ezin genuelako elikagai bilketa egin. Eskoletan eta saltokietan egiten den elikagai bilketa garrantzitsua da, baina diru ekarpena ere inportantea da, oso baliagarria delako kamioiaren karga osatzeko. Durangaldeko herritarren erantzuna urtero lez oso ona izatea espero dugu.

**Zein erantzun jasotzen duzue urtero? Erantzuna oso ona da beti, eta oso eskertuta gaude.**

**Zein mezu helaraziko zenieke eskualdeko herritarrei?**

Badakigu egoera ekonomiko orokorra ez dela ona eta hemen ere badaudela txarto pasatzen dabiltzan familiak. Bakoitzak bere baliabideen arabera egiten du ekarpena eta ulertzekoa da. Oso proiektu beharrezkoa da hau, eta, gatazka politikoa konpondu arte, saharar herriaren aldeko mugimenduak laguntzen jarraituko du.



**Mikel del Arco Zumarraga**  
Río de Oro elkarteak  
DURANGO | 1988

## Adinekoen zerbitzuak bidaia antolatu du Viena eta Tirol ezagutzeko

**DURANGALDEA • EKAITZ HERRERA**

Mankomunitateko adinekoen zerbitzuak bidaia antolatu du Austriako hainbat hiri ezagutzeko. Bidaia maiatzaren 16tik 23ra izango da eta bertan inskribatzeko epea otsailaren 22ra arte dago zabalik. Mankomunitateak esku hartzen duen udalerrietako kideek parte hartu dezakete. 60 urtetik gorakoek, Durangokoek salbu. Inskripzioa Elkartegian egin behar da.

## 25.000 arbola sartuko dituzte Garain, 250.000 metro karratu baso biziberritzeko

Garaiko Udalak martxo amaierarako amaitu gura ditu birlanaketa lanak. Bertoko espezieak sartu eta 100.000 metro koadroko hariztia berreskuratuko dute

**GARAI • E.H.**

Haritzak, urkiak, ametzak, arteak zein gorostiak. Garaiko basoetan aspaldiko birlanaketarik handiena egiten dabilta. Garaiko Udala 25.000 arbola berri sartzeko lanetan dabil, guztira, 25 hektareako baso lurra berreskuratuko asmoz. Birlanaketagaz, behinola hariztiak, pagadiak eta abarrek izandako espazioa berreskuratuko dute. Arbolarik gehienak Lasiar

onura publikoko mendian sartzten dabilta, baina basoari jarraitutasuna emateko asmoz, beste eremu batzuetan ere egingo dituzte landaketak. Modu horretan, 100.000 metro karratuko hariztia berreskuratuko dute.

Garaiko Udalak jakinarazi duenez, birlanaketaren zati bat Red Eléctrica enpresak iraganen egingo dako arbola mozketak "arintzeko asmoz" egingo dute. Udalak bal-

dintzak ipini zizkion enpresari birlanaketekin laguntzeko eta hondatutako pista bat konpontzeko. Akordio horri eskerrak, udalak 100.000 euro jaso ditu birlanaketarako. Horrez gainera, beste 33.000 euro, Garaiko Udalak berak inbertitu ditu.

**Tokiko arbolak**

Garaiko Udalak "basoa anizteko" asmoa agertu du, "sasoi bateko espe-

zie bakarreko jarduna alde batera" utzita. Espezieen dibertsifikazioan egin du azpimarra. Hori dela eta, bertoko zuhaitzak errespetatuta, haritzak, urkiak, arteak, ametzak, gorostiak, gaztainondoak, pagoak,

**Landaketaren zati bat Red Eléctrica enpresak egingo dituzte "arintzeko" egingo dute**

zedroak, itsas pinuak, sekuoiak, japoniar zedroak eta abar sartuko dituzte. Horretarako, lurren orografia, orientazioa, argitasuna eta hezetasuna kontuan hartu dituzte. Lanak martxo amaierarako amaituta egotea aurreikusi dute.

HAUR HEZKUNTZA | LEHEN HEZKUNTZA | DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA

**Erdu Gurekin!**

**Berrizko euskal eskola publikoa**

**LEARRETA-MARKINA eskola**  
Learreta-Markina kalea z/g 48240 BERRIZ  
Tel.: 946 824 344 | 014097aa@learretamarkinaberriz.com  
www.learretamarkinaberriz.hezkuntza.net

**IES BERRIZ BHI**  
Elizondo plaza 7A 48240 BERRIZ  
Tel.: 944 287 976 - 015073aa@hezkuntza.net  
www.berrizbhi.com

**AURREMATRIKULA**  
Otsailaren 13tik  
24ra arte

2 urtetik 16 urtera · Jantokia eta garraioa · Ikasleen eta gurasoen partaidetza bultzatuz



Esteibarlanda kaleko infografia.

## Esteibarlanda irisgarriago egiteko lanak hasi dituzte

Esteibarlanda kaleko lanak hiru hilabeteko epean egin beharko dituzte eta 163.821 euroko aurrekontua dute

**ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR**

Asteon, Esteibarlanda irisgarriago egiten hasi dira. "Jende asko ibiltzen da herriko gunetara, horretan, osasun zentroa bertan dagoelako, besteak beste. Horregaitik, ezinbestekoa da bertako irisgarritasuna eta segurtasuna hobetzea", azaldu du Idoia Buruaga alkateak. Lanak egiteko,

auzokideekin eta Osakidetzako langile eta arduradunekin hartu-emanetan egon dira udalakoak. "Elorrio denontzat herri atsegina, irisgarria eta segurua izatea gura dugu", esan du alkateak.

Lanak hiru hilabeteko epean amaituko dituzte eta 163.821 euroko aurrekontua dute.

## Elorrioren diru bilketa hasi dute Araunaonandia baserria eraberritzen laguntzeko

Bertan bizi ziren familia bien lagunek hasi dute diru bilketa. Kontu korronte bat zabaldu dute

**ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR**

Urtarrilaren 26an Elorrioko Araunaonandia baserriak su hartu zuen. Sutearen ondorioz baserriak jasandako kalte materialak handiak izan ziren. Baserri erdia guztiz kiskalita geratu zen eta beste erdian ere kalteak oso nabarmenak izan ziren. Baserrian familia bi bizi ziren.

Familiei laguntzeko asmoz, eta baserria berritzeko gastuei aurre egiteko, familia hauen kuadrillakoek diru bilketa bat ipini dute martxan. "Antzinako ohiturei jarraituz eta herri elkartasunari helduz", adierazi dute. Horretarako, kontu korronte zerbaki bat zabaldu dute: ES91 3035 0003 41 0031119557



Araunaonandia baserria sutea gertatu eta gero.

## Zetak, Merina Gris, Mocker's eta Su Ta Gar Topagunean, besteak beste

**ELORRIO • M.Z.**

Bere 10. urteurrenean, Ernaik Elorrio aukeratu du Gazte Topagunea egiteko. Apirilaren 6tik 9ra egingo dute, 'Elorrio bizitzeko modu bat da' lelopean. Eta dagoeneko eman dute egitarauaren berri. Besteak beste, honako talde hauek arituko dira Elorrioren: Zetak, Merina Gris, Su Ta Gar, Dupla eta Sociedad Alkoholika.

Eskualdeko taldeak ere arituko dira Elorrioko Gazte Topagunean. Tartean, Iheskide, Mocker's, Gora Etorri, Zeker, Peio eta Itsua, Pinpilinpussies eta Dube.

Kontzertuez gainera, egitarau zabala ere antolatu dute. Ekitaldiak eta berbaldiak ere egongo dira. Eta baita tatuaje eta grafiti tailerrak, sortzaileen azoka, komedia showa eta garagardo dastatzea ere, besteak beste.

Bestalde, Ernaiko kideek jakinarazi dutenez, Gazte Topagunerako bonuak eskuragarri daude dagoeneko.

## Bost euroko deskontu bonuak atxondarrentzat

Udala deskontu bonuak banatzen dabil herritarren artean

**ATXONDO • MAIALEN ZUAZUBISKAR**

Herriko merkataritza bizi-berritzen jarraitzeko asmoz, Atxondoko Udalak beste deskontu-bonu kanpaina bat ipini du martxan. "Horrelako kanpainak sendotzen jarraitu behar dugula uste dugu eta horregaitik ipini ditugu berriro

martxan bonu hauek", azaldu du Xabier Azkarate Atxondoko alkateak.

Udalak 10.000 euro ipini ditu bonuetarako, eta bost euroko deskontu-bonuak banatzen dabil herritarren artean. 10 eurotik gorako erosketetan trukatu ahal izango dira.



Atxondoko argazkia.

## Bizikletentzako aparkaleku seguru bat ipiniko dute Abadiñon: 'Bizipark' gunea

'Bizipark'-a urte amaierarako egongo da eginda



Patxo Campo, Miguel Angel Gómez Vilar, Mikel Garaizabal eta Javi Crespo

**ABADIÑO • MAIALEN ZUAZUBISKAR**

Abadiñon bizikletentzako aparkaleku seguru izango du urte amaierarako, Traña-Matienako tren geltokiaren ondoan. Mikel Garaizabal alkateak jakinarazi

duenez, udalerrian mugikortasun aktiboa eta jasagarria sustatzen jarraitzeko bidea da hau. "Erakundearen arteko lankidetzak berriro ere beharrezko ekipamendu berri hau izateko aukera ematen digu.

Abadiñon bizikleta erabiltzeko kultura daukagu, baina administrazioei dagokigu azpiegiturak eta segurtasuna eskaintzea. 'Bizipark'-a tren geltokiaren ondoan egongo da eta, horrela, bizikleta eta garraio publikoaren arteko intermodalitatea ahalbidetuko du", gaineratu du alkateak.

Gutxienez 24 bizikletarentzako aparkalekua izango duen gunea

### 24 bizikletarentzako aparkalekua izango duen gunea hainbat ezaugarri izango du

hainbat ezaugarri izango du: sARBIDEAK kontrolatzeko sistema eta kudeaketarako softwarea, barneko argiztapen iraunkorra eta kameraren bidezko zaintza sistema, besteak beste.

"Esperientziak erakusten digunez, mugikortasun aktiboa sustatzeko bidean aurrera egiteko modu ona da horrelako guneak sortzea, eta pozik gaude Abadiñon horrelako bat sortzeaz", adierazi du Miguel Ángel Gómez Vilar Garraio eta Mugikortasun Jasagarria Sustatzeko diputatuak.

# ARKITEKTURA PEDAGOGIAREN ZERBITZURA

Elorrioko Txintxirri Ikastolan eraikin berria egin dute, pedagogia arloan landutako erudutik abiatuta materialak eta diseinua aukeratzeko

Otsail amaieran inauguratuko dute Haur Hezkuntzako bigarren zikloko (3-4-5 urte) umeentzako eraikina, hainbat hilabetez lanak egiten jardun ostean. Ia erabat bertako egurrez eta material natural eta ekologikoekin eraikitako geletan eguzkiaren argia leiho handi eta ugariatik sartzen da eta energia kontsumoa minimoa da, argiztapenean bai berokuntzan, konfort termiko handia mantenduz.

Prozesu luze baten emaitza izan da eraikin berri hau. Hainbat urtez arkitekto talde bat Ikastolako irakasle, langile eta gurasoekin batera hezkuntzara begirako premiak eta espazio ezberdinen aukerak aztertzen aritu da.

**NONDIK arkitektoak:** "Pedagogia aktiboari eta honi lotutako zirkulazio autonomoa bezalako irizpideei jarraituta egin dugu diseinu guztia, arkitektura pedagogiaren zerbitzura ipinita."

Umeek jolastoki berria ere estreinatuko dute eraikinarekin batera. Jolastoki berrian harea, egurra, hartxintxarra, belarra, zuhaitzak eta halako material naturalak izango dira nagusi.

Apustu handia egin du Ikastolak eraikin honekin. Hirurehun urtetik gora dituen eraikin nagusian bestelako espazioak behar dituztela eta Haur Hezkuntzako umeentzat beren-beregi egindako eraikina aurrerapauso handizat jotzen du Nora Aizpitarte Ikastolako lehendakariak.

**NORA AIZPITARTE:** "Hezkuntza arloan kalitatea helburu izanik ezinbestekoa ikusten genuen honelako proiektu bati ekitea. Oso pozik gaude emaitzarekin eta umeek berehala nabarituko dute hoberako aldaketa."



## ERROETATIK, ORRI BERRIETARA

Ateak zabalik, ezagutu eraikin berria!



### HALIMA

"Elorriora etorri ginenean oso ondo hitz egin ziguten Ikastolari buruz. Harrezkero seme-alabak bertan daude eta oso pozik joaten dira egunero Ikastolara."



### MARIBEL ETA ESTI

"Ikastolan, Herri Onurako Kooperatiba izanda, guztiok dugu zeresana eta zeregina. Guztion ahotsak du garrantzia eta familia guztien artean hartzen ditugu erabakiak."



### BEÑAT ETA JOSU

"Gure semeak Abadiñotik Txintxirri Ikastolara bidali genituen DBH egitera eta, hasieran apur bat kostatu bazitzaie ere, orain oso gustura daude. Berehala egin dituzte lagunak eta asko eskertzen dute eskola-orduez kanpo "ikaslagun" indartze saioetara joan ahal izatea."



### ANEPE

"Ikastolan egin nituen urte guztien oroitzapen oso onak ditut. Uste dut 16 urte egin arte han ikasi eta bizi izandakoak asko lagundu didala gerora dantza munduan egindako ikasketak burutzeko eta ondorengo ibilbide profesionalerako."



Egurra eta beira nagusi fatxada guztietan, kokaleku ezin hobean.



Barrualdean espazio irekiak, egurra eta argitasuna dira nagusi.



Teilatu gainean lurra ipini dute, bertan landareak landatu eta, ingurumenari laguntzeaz batera, isolamendua hobetzeko.



Leiho ugari argitasuna hobetu eta inguruko behatzeko aukera ematen diete umei.



### Ingurumena eta euskara oinarri izanik, herritik eta herriarentzat

- Euskal nortasuna, hezkuntzaren ardatz
- Familiak sortzaile eta kudeatzaile
- Gurasoen beharretara moldatzen gara
- Ekoizle txikien sasoiko produktuekin ikastolan sukaldatutako otorduak



### Eraikin berria, arkitektura eta teknologia pedagogiaren zerbitzura

- Arlo pedagogikoan eta teknologikoan aitzindariak
- Ikasleen zirkulazio autonomoa
- Adin desberdinetako ikasleen arteko harremanen sortzaile



### Bizitzan aurrera egiteko prest!

- Ikasleen ongizatea erdigunean duena
- Ausardiaz etengabe berritzen doan ikastola
- Irakasle talde egonkorra eta konprometitua

# Pinudiak murriztea eta hariztiak areagotzea dira Baso Planeko helburuetariko bi Otxandion

Tramitazio guztiak eginda, datozen hamar urteetara begirako baso planari ekingo dio Otxandioko Udalak aurten

**OTXANDIO • JOSEBA DERTEANO**

Hainbat urtetako prozesuaren ondoren eta beharrezko tramitazio guztiak eginda, Otxandioko Udalak Baso Plana martxan ipiniko du aurten. Guztira, herri onurako 609 hektareari eragingo dio eta hamar urtera begirako plangintza eta ekintza planak jasotzen ditu.

Une honetan, herri onurako lurretako %90 zuhaitziak dira. Zuhaitzien artean, pagadiak eta pinudiak dira nagusi, %29 eta %27, hurrenez hurren. Ondoren, haritza (%17) eta haritz amerikarra (%9) datoz.

Baso Planaren bitartez hainbat helburu bete gura dute. Euretari bat pinuari buruzkoa da. Hain zuzen ere, baso publikoetan pinuen azalera %50 murriztu gura dute. Ildo horretatik, pinudietan matarrasak ekidin eta entresakak multzoka egitea da helburua, bertako espezieak landatuz eta baso mistoak sortuz.

Pinudiak murrizteagaz batera, bestelako baso ereduak sustatu gura dituzte. Horrela, harizti eremuak areagotzea eta hariztien eta pagadien basoberritze naturalak sustatu gura dituzte. Azkenik, datozen urteetan inbertsioak egin gura dituzte bioaniztasuna kontserbatzeko eta hainbat espezieren habitata hobetzeko.



Udalak Lur Geroa enpresari esleitu dio aholkularitza zerbitzua.

## Lur Geroaren aholkularitza

Plana aurrera eramateko aholkularitza Lur Geroa enpresari esleitu diote. Lur Geroa enpresaren lan esparru nagusia landa-ingurunea da, eta nekazaritzako, basogintzako nahiz ingurumeneko ingeniarietako proiektuak gauzatzen dituzten baso ingeniariak osatzen dute. Hain zuzen ere, Lur Geroa

bera izan da Baso Planaren diseinua egin duen enpresa. Berau osatzeko, herritarrekin parte hartze prozesu bat egin zuten orain urte batzuk.

## Aurtengo ekintzak

Aipaturiko helburuak lortzen joateko, urtero hainbat ekintza egingo dute. Lur Geroakoek prest dute

aurtengo ekintza proposamena. Orain, Aldundiko Baso Zerbitzuak ekintza-planari oniritzia emateko zain daude. Asmoa da datorren astean Lur Geroakoak ekintza-plana udalari aurkeztea eta ondoren basoetara joatea ekintzak non eta zelan gauzatuko diren bertatik bertara ikusteko. Baso Zerbitzukoak ere saio horretara gonbidatuta daude.

Aurtengo urterako ekintza proposamena hau da: pinudi eremu baten entresaka egitea, basoen mantentze-lanak egitea, su egurretarako kokapena zehaztea eta bioaniztasunari buruzko ikerketa bat egitea. Hain zuzen ere, aurten saguzarren inguruko ikerketa bat egin gura dute. Otxandion hainbat espezie berezi dago eta euretari

**Matarrasa bidezko mozketak ekiditea eta bioaniztasuna kontserbatzeko inbertsioak egitea dira beste helburu bi**

**Aurten Ferra eta Bechstein saguzar moten habitatari buruzko ikerketa bat egin gura dute**

bi Ferra eta Bechstein espezieko saguzarrak dira. Euren habitatari buruz gehiago jakin gura dute, ondoren ekintzak egin eta euren egoera hobetzeko.

Baso Planak hainbat onura ekarriko duela uste dute. Esaterako, bizitza kalitatea "hobetuko" du Otxandion, Egoitz Garmendia alkaterearen esanetan: "Eremu naturalen azalera asko handituko da eta herritarrak lasaiago ibiliko dira". Horrez gainera, "onura ekonomikoak" ere ikusten ditu, besteak beste, bisitariari begirako ibilbide berriak egiteko aukera egongo delako eta horrek turistak erakarri ditzakeelako.

## Mañariko Santa Agendan 800 bat euro Saharako errefuxiatuentzat

Aste Santu osteko bidaian helaraziko dute dirua kanpamentuetara, Hamadako Izarrak elkartearen bitartez

**MAÑARIA • J.D.**

Joan zen zapatuan Santa Ageda koplak abestera irten zuten Mañarian. Baturiko 800 euroak Saharako errefuxiatuen kanpamentura helaraziko dituzte, Hamadako Izarrak elkartearen

bitartez, Aste Santu inguruan. 2015etik proiektuan parte hartu duten umeen familiei janaria erosteko da dirua. Antolatzaileek "eskerrak" eman dizkiete herritarrei eta bazkaria prestatu zuten boluntarioei.



Mañariarrak Santa Ageda koplak abesten, joan zen zapatuan.

## Auzo-taxirako txartela berritzeko aukera dago Mallabian

**MALLABIA • J.D.**

Orain urte gutxi, Mallabiko Udalak auto-taxia ipini zuen martxan herritarrei joan-etorrietan laguntzeko. Zerbitzu hori erabili ahal izateko, identifikazio txartel bat eskuratu eta urtero berritu beharra dago. Udaletik gogoratu dute txartela berritzeko aukera dagoela udaletxean. Horretarako, txartela berritu edo eskuratu gura duenak dokumentu bi eraman behar ditu: NANaren kopia eta NANerako tamainako argazkia. Txartel hau pertsonala eta besterenezina dela gogoratu dute; hau da, txartela atera duenak baino ezin du erabili. Txartelak urtea amaitu arte balio du.

## Izurtzan txitxiburduntzi eguna ospatuko dute domekan

Udaletxe aurreko plazan egingo dute, domeka eguerdian, eta txitxiburduntzirako sua eta edaria udalak ipiniko ditu

**IZURTZA • J.D.**

Urteroko ohiturari eutsiz, txitxiburduntzi eguna ospatuko dute domeka honetan Izurtzan. Parte hartu gura duenarentzat, udaletxe pareko plazan ipini dute ordua, eguerdian. Txitxiburduntzia

egin ahal izateko sua eta edariak (garagardoa, freskagarriak...) udalak ipiniko ditu, udal arduradunek azaldu dutenez. Txitxiburduntzirako janaria eta bestelakoak, ostera, norberak eraman beharko ditu plazara.



Izurtzan urtero ospatzen dute txitxiburduntzi eguna.



# BIZI TZEKO HEZI

KURUTZIAGA  
IKASTOLA 

**MATRIKULAZIO EPEA**  
otsailaren 13tik 24ra

**ATEAK ZABALIK  
JARDUNALDIA,**  
otsailaren 11n, 10:30ean  
(Aurretiaz deitu)

*\*2021ean jaiotako haurrei  
zuzendua*

**ESKAINTZA:**  
0 urtetik 18 urtera bitarteko  
hezkuntza eskaintza

**HELBURUA:**  
Ikasle eleanitz, kritiko eta  
euskaldunak

**JANTOKIA:**  
Bertokoa, sasoiak eta  
produktu ekologikoak



[www.kurutziagalkastola.eus](http://www.kurutziagalkastola.eus)





## Anbotokideen txokoa

### OTSAILEKO ZOZKETAK



**Hondamendia** antzerkirako sarrera bikoitza. Otsailaren 17an, Arriolan.



**Urteak bete, abenturak bizi** ikuskizunerako sarrera bikoitza bi. Otsailaren 17an, Zornotza arretan.



**Goazen 9.0** ikuskizunerako sarrera bikoitza bi. Otsailaren 18an, Zornotza aretoan.



**Rabbit Academy: Pazko arrautzen lapurreta handia** filma ikusteko sarrera bikoitza. Otsailaren 19an, Arriolan.



**Uxarte sagardotegian** bi pertsonentzako jatordua.

\*Zozketa hauetan parte hartzeko eman izena gure webgunean.

### IRABAZLEAK

**Anonyme Popular:** San Antonio ikastetxea

**Urtxintxaren fabula:** Txinbiri ikastola

**Katagorriaren fabula:** Virginia Miñambres

**Arrainak bihotzean:** Jose Mari Azkarate

### Okm:

batzen gaituen distantzia

Egin zaitez Anbotokide eta parte hartu gure zozketetan!



## Alberto Sololuze eta Joaquin Beltran gogoratu dituzte Eitzagan, hondakindegia amildu eta hiru urtera

Zaldibar Argituk deituta, dozenaka lagun batu ziren Eitzagan; astelehenean hiru urte bete ziren tragediatik

**ZALDIBAR** • A. M.

Zaldibar Argitu plataformak deituta, otsailaren 5ean dozenaka lagun batu ziren Zaldibarko Eitzaga auzoan Alberto Sololuze eta Joaquin Beltran gogoratu, Zaldibarko hondakindegia amiltzea salatuz eta erantzukizunak argitzea eskatzeko. Hain zuzen ere,

astelehenean hiru urte bete ziren tragedia gertatu zenetik. "Gertatu behar ez zen eta ekidin zitekeen hondamendia izan zela argi geratu da", azaldu zuen Janire Lazkano Zaldibar Argitu plataformako kideak. Eitzagako bizilagun batek ere berba egin zuen ekitaldian, krisiaren kudeaketa kritikatzeko,

besteak beste. "Hainbeste aipatzen duten auzolana hemen ez dugu aurkitu, ez auzokoentzat, ez kanpokoentzat; bakarrik agintzaile eta agintari direnen onerako", esan zuen. Bertako auzokideez ez ahazteko eskaera ere egin zuten. "Gu gutxi gara eta hemen geratzen gara, zabortegiko kutsaduraren ondorioz ez nabaritzeko esperantzagaz. Autobidetik zoaztenok ez ahaztu zela berde polit horren azpian pozoi mordo dagoela, eta, batez ere, ez ahaztu gutaz".

**Jaurlaritzaren eskaera**

Arantxa Tapia Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Iraunkortasun eta Ingurumeneko sailburuak Verter Recycling enpresari zabortegia "behin betiko zigilatzeko" eskatu zion astelehenean egindako prentsa agerraldian.



Eitzaga auzoan joan zen domekan egindako ekitaldiko irudi bat.

## Hilerrira sartzeko bideko lanak hile bi barru amaitu gura dituzte

Lanak ia 235.000 euroko aurrekontua dute eta, Berrizko Udalaren esanetan, lanak hile biko epean amaitzea aurreikusten dute; Aldundiak 30.000 euro gaz lagundu du

**BERRIZ** • A. M.

Eliza eta hilerrira lotzen dituen bidea konpontzen dabilta Berrizen; 300 bat metroko luzera duen egungo zoladura egokitzea eta birgaitzea da helburua. Lanek ia 235.000 euroko aurrekontua dute eta, Berrizko Udalaren esanetan, lanak hile bi barru amaitzea aurreikusten du. Bideak lau metro eta erdiko zabalera izango du, oinezkoak eta ibilgailuak batera errazago igaro ahal izateko. Errepidearen egoera hobetzeaz gainera, inguruko segurtasuna ere hobetuko duela azaldu du Berrizko Udalak. Bizkaiko Foru Aldundiak ia 30.000 euroko diru laguntza eman du.



Hilerrirako bidea konpontzen ari dira.

# “Jasotzen ditugun mezu, ekarpen eta bideoetan egundoko kariñoa igartzen dugu”

Amaia Araujo eta bere familia ekarpenak jasotzen dabilta zozketa handi bat egiteko. Kanpainak *Amaiagatik salto!* du izena



Igor Araujo, Amaia eta Esti Martin.

## ZORNOTZA • EKAITZ HERRERA

Metro gutxi batzuk aurrera egin eta geldiunea. Baten batek Amaia gelditu du kalean, zelan dagoen jakiteko. Beste bost metro aurrera egin eta berdin. "Zer moduz, Amaia?", galdetu dio zornotzar batek. Bai. Amaia Araujo Martin oso ume ezaguna da Zornotzan. Larrea eskolara joaten da, AIDAE elkartearen parte hartzen du, bere kabuz mugitzen da gurgildun aulki motorizatuan, eta gaixotasun arraro bi ditu: artogripoti anizkoitz kongenitua eta bihurtura-distonía. Orain, Esti Martin amak, Igor Araujo aitak eta Julen neba nagusiak kanpaina bat hasi dute Amaiarri aurrera egiten laguntzeko. Kanpainak *Amaiagatik salto!* du izena eta helburu nagusi bat dauka: umeak behar dituen

osasun terapiak ordaintzeko funtsak batzea. Izan ere, terapia espezializatuak direla, ortesiak direla, Bartzelonako Sant Joan de Déu ospitalerako joan-etorriak direla, familiak gastu ekonomiko handiak ditu. "Sei urte bete arte, Foru Aldundiak arreta goiztiarra bermatzen du. Medikuek espezializatuak dituzu, erizaina, azterketak... Baina behin sei urte eginda, zerbitzuan erabateko etena dago. Zer gertatu zitzaigun guri? Amaiak izurri betean egin zituela sei urte eta inora jo ezinda geratu ginela. Dena apur bat normaldutakoan, terapiak direla-eta egundoko faktura jaso genuen. Hilero-hilero 400 euro ordaintzen gabiltza", azaldu du Esti Martinek, Amaiaren amak. Orain, familiako kideak zozketa erraldoi bat presta-

tzen dabilta. "Jendeak emaniko gauzeekin loteak egiten gabiltza. Demagun lehenengo lotea Doctor Deseo taldeak sinaturiko diskoa eta kamiseta direla. Demagun bigarren lotea Zornotzako optika bateko kontsumo bonua dela. Hirugarren lotea izan daiteke Eneko Atxarenean bazkaltzeko aukera. Halantxik gabiltza, dohaintzekin loteak egiten. Bien bitartean, jendea errifak erosten dabil", azaldu du Martinek.

Zozketa erraldoia maiatzaren 27an egingo dute, Jauregibarria parkean egingo den jaietan. Loteak osatzeko ekarpenak zein dohaintza ekonomikoa 636 305 686 telefonora deituta egin daitezke. Errifak Zornotzako hainbat komertziotan daude salgai. Esti Martinek dioenez, herritarren harrera "egundokoa" izaten ari da, "itzela". "Jasotzen ditugun mezu, ekarpen eta bideoetan egundoko kariñoa jasotzen gabiltza", diote. "Beti diot izorratuta baina pozik gaudela. Amaia oso irribarretsua da eta irribarre horri eustea gura dugu", gaineratu du Martinek.

## Barreterapia, gozogintza beganoa eta automasajeak Zornotzako ikastaro berrietan

### ZORNOTZA • E.H.

Zornotzako Udalak herritarrentzako jardueren gida berria kaleratu du. Otsailetik ekainera programaturiko ekintza guztiak batu ditu liburuxka batean. Berdintasun, kultura, kirol eta prestakuntza jarduerak batu dituzte atalik atal. Argitaraturiko aleak etxerik etxe banatzen dabilta, baina gura duenak eskuragarri dauka ikastaro bakoitzaren informazioa [anboto.org](http://anboto.org) atarian. Barreterapia, maskulinitate berriak, gozogintza beganoa eta automasajea dira ikastaro berrietan emango diren tailerretariko batzuk.

## Egunerokoan ezkutatzeko den zientzia ikusarazteko erakusketa Iurretan

Euskaraz eta gaztelaniaz egindako 11 infografiaz osaturiko 'Zientzia kalean' erakusketa dago ikusgai Amilburun



Udal ordezkariak eta NorArte estudioko kide bat, aurkezpenean.

### IURRETA • AITZIBER BASAURI

Amilburu plazan 'Zientzia kalean' erakusketa dago ikusgai, otsailaren 21era arte. Egunerokoan erabiltzen eta kontsumitzen ditugun hainbat objektu eta produkturen atzean dagoen zientzia bistaratzea du helburu erakusketak. EHUko Kultura Zientifikoko Katedraren eta Nafarroako Unibertsitateko Zientzia Museoaren egitasmoa da eta NorArte ilustrazio zientifikoko estudioak euskaraz eta gaztelaniaz egindako 11 infografiatan mugikorrei, barra kodeei, txertoei, iturriko urari eta sukaldeko plaken funtzionamenduari buruzko azalpen zientifikoak ematen dira, besteak beste.

Interneten edo paperean erantzuteko 'Zientzia kalean' galdera sorta ere prestatu du udalak, eta ondo betetzen dutenen artean tokiko produktuen otzara zozkatuko dute. Bestalde, hilaren 14an bisita gidatuak egingo dituzte, 17:30ean euskaraz eta 18:30ean gaztelaniaz.

## Iurretako Bidebarrieta kalean oinezkoentzako lekua handituko dute

### IURRETA • AITZIBER BASAURI

Udalak prest du Bidebarrieta kalea berrurbanizatzeko aurreproiektua, eta herritarrei aurkeztu die. Oinezkoentzat 1.100 metro koadro baino gehiago handitzea jaso dute, eta Bidebarrietako aparkalekuak N-634 errepide nagusiaren beste aldeira lekualdatzea; 95 bat aparkaleku aurreikusitakoak. "Libre geratuko den espazioa egonaldietarako eta oinezkoentzako gunek handitzeko balioko du", esan dute udal arduradunek. Kalearen tarte bat erdi peatonala izango da.

Behin betiko proiektua idatzi ondoren hasi gura dituzte lanak, urte amaieran.

**MATRIKULAZIOA 2023 - 2024**

**OTSAILAREN 13tik 24ra**

LANDAKO ESKOLA PUBLIKOA  
Hazi, hezi, hegan egin



INFORMAZIO ETA IZEN EMATEAK

**944280174**

[idazkaria@landakoeskola.org](mailto:idazkaria@landakoeskola.org)



# 'Tour Eguna' Durangon, otsailaren 12an

Txirrindularitza elkarteak bizikleta martxa antolatu du 12 urtetik beherakoentzat



Zornotzan iazko urrian egin zuten Tour Eguna.

## DURANGO • E.H.

Aurtengo Frantziako Tourra Durangotik ere pasatuko denez besteak beste, domeka honetan jai txiki bat egingo dute Ezkurdin. 10:30etik 14:30era bitartean, Tour Eguna egingo dute bertan. Hainbat gune eta ekitaldi prestatu dute horretarako. Pumptrack edo trebezia lantzeko pista, ginkana, mekanika tailerra, Tourraren museoa eta Bizkaiko txirrindularitza federazioaren karpa egongo dira, besteak beste.

Horrez gainera, Durangaldeko txirrindularitza elkarteak bizikleta martxa antolatu du 12 urtetik beherakoentzat. Martxak Ezkurditik irtengo du, 11:00etan. Bestalde, 12:30ean, omenaldia egingo diete Durangaldeko txirrindularitza elkarteko kideei.

## Politikan

Neskutz Rodriguez Ormazabal  
Herriaren Eskubidea



### "Aldaketa kulturala" eufemismoa denean

Lagun batek beti esaten dit osasun pribatura jotzen dugula dirututa edo etsita gaudelako. Guztiz ados nago; are gehiago, pandemiak agerian utzi duen osasun publikoaren etengabeko desgitearen ondoren, edo Sagarduik eta Ayusok "kultur-aldaketa" dioten bezala.

Osasun publikoa defendatzen dugunok askotan kexu gara hitzordu bat berandu eman digutelako, proba bat egiteko pribatura bideratzen gaituztelako, herri txiki batean bizi garenez anbulatorioa itxi digutelako e.a. Arazoa premiazkoa edo jasanezina denean, dilema dator: ospitaleko larrialdietara joango gara orduak eta orduak itxaroten egoteko ala mediku pribatu bat ordainduko dugu (ahal duenak), eta jakinda, askok publikoan ere lan egiten dutela (baina hau hurrengo baterako)?

Eta Durangon zer? Osasun publikoko zerbitzuen gabeziari, auto pribaturik ezean (anbulantzia luxua dela dirudielako), garraio publikoan dauden garraio-aldaketak gehitzen zaizkio, itxaronaldia luzatuz (adibidez, Gernika edo Gurutzeta), eta gaixotasun batzuetarako badakigu denbora premiazkoa dela.

Badirudi Eusko Jaurlaritzaren apustua Osakidetza pribatizatzea dela, eta bakoitzarenn osasuna dirutan neurtzea. Baina edozein Herriren ongizaterako, ezinbestekoak dira kalitatezko zerbitzu publiko bi: Osasuna eta Hezkuntza.

Beraz, Sagardui andrea, zer deritzozu "kultur aldaketa" pribatu hori alde batera utzi eta ospitale publiko bat eraikitzen badiguzu Durangon behar eta merezi ditugun zerbitzu publikoak asetzeko? Lurzoru publikoak badaukagu: Fundifes zaharreko lurzoruak.

## Durangaldea asteen

### Aramotzeko urbanizazioa berritzeko lanak lehiaketa publikora ateratu dituzte

**DURANGO** | Aramotz berritzeko proiektuetariko bat, auzoko urbanizazio inguruak eraldatzeari dagokion atala, lehiaketa publikora ateratu dute. Durangoko Udalak 2.207.199 euroan kaleratu du lizitazioa, diru horregaz auzoko zoladura osoa aldatu, hiri-altzariak berri eta Larrinagatxu erreka berbideratzeko.

### Durangoko Maristak ikastetxeak HealthyLifestyle4all kanpainagaz bat egin

**DURANGO** | Maristak ikastetxeak Europako Batzordearen HealthyLifestyle4all kanpainagaz bat egin du. Ikastetxetik azaldu dutenez, Gasteizko eskola batez batera Maristak Europa osoko lehenengo zentroa izan da kanpainagaz bat egiten. Bizitza aktiboa egitea eta kirola osasunagaz eta elikaduragaz lotzea da honen asmoa.

### Komun publikoak ipintzea eta argiztapena hobetzea, proiekturik bozkatuenak

**ABADIÑO** | Abadiñoko Udalak aurrekontu parte hartzaileetako proiekturik bozkatuenen berri eman du eta honako hauek izan dira: komun publikoak instalatzea eta kanpoko argiztapena hobetzea.

Udaletik jakinarazi dutenez, guztira 296 abadiñarrek parte hartu dute eta aurrekontu parte hartzaile horietarako 100.000 euro ipiniko dituzte.



### Bigarren eskuko azoka Berrizen

**BERRIZ** | Berriz BHI 3. DBH mailako ikasleek bigarren eskuko azoka egin dute. Azokan bertan ikasleek errifak saldu zituzten; 84 zenbakia irten zen saridun. Berrizko denda batean erabiltzeko 40 euroko bonua zen saria.

Antolatzaileen esanetan, ikasleek, irakasleek eta herritarrek begi onez hartu dute ekintza, eta aurrerantzean errepikatzeko gogoia adierazi dute.

**Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:** Bixente Kapanaga 9, - IURRETA • Izen-abizenak • telefona • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia **DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO** Alderdi, elkarte edo taldeko iritzia kide baten izenean sinatuta eta ANBOToren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).

**hitz** artekalea 23, durango  
946 810 776  
liburudenda info@hitzliburudenda.com

#salduenak

**1º** NI EZ NAIZ MIKEL LABOA Iturrilaga/ Casco/Larritxe (33kar)

**2º** GARI ETA GOROLDIOZKO Anari Albeni (Susa)

**3º** BAR GLORIA Nerea Ibarzabal (Susa)

**DIBA**  
KOOPERATIBA

Durangaldeko Baserritarren Elkarte

Murueta, 6 ABADIÑO - Tel.: 94 681 87 92

Athletic Club



Vs



Girona FC

## Athleticen eta Gironaren arteko partidarako sarrerak San Mames VIP Area-ko palkoan



Atheticek San Mamesen jokatuko dituen Ligako eta Kopako partida guztietako sarrera bikoitz bana (palkokoa) zozkatuko du ANBOTOK hemendik aurrera.

Oraindik Anbotokide ez bazara, ez galdu zozketa hauetan eta ANBOTOK egiten dituen gainerakoetan parte hartzeko aukera eta egin zaitez Anbotokide!

Zozketan parte hartzeko azken eguna: otsailaren 20a.

**Okm:**  
batzen gaituen  
distantzia

Egin zaitez Anbotokide  
eta parte hartu gure  
zozketetan!



**anboto**  
kide

# Okm:

*batzen gaituen  
distantzia*

---

## Abantailak

### EUREKA! ZIENTZIA MUSEOA

- %10eko deskontua museoko eta planetarioko sarrera orokorrean, bai eta bietarako balio duen sarrera konbinatuan ere.

### HITZ LIBURU-DENDA

- %10eko deskontua euskarazko liburuetan.

### HONTZAEXTREM ABENTURA PARKEA

- %15eko deskontua sarreran

### IURRETA KOPISTEGIA

- %5eko deskontua eskola eta bulego materialean.
- %5eko deskontua musika, opari eta liburuetan.
- Ez da bateragarria beste eskaintza batzuekin.

### KIROL ERROTA GIMNASIOA

- Bazkide berriei matrikulazioa doan.

### LANDAKO OPTIKA

- %15eko deskontua eguzkitako betaurrekoetan, audiologian, ikusmen urritasunean eta armazoi eta lenteetan.

### MANCISIDOR 1866 BITXI-DENDA

- % 5eko deskontua 100€ra arteko erosketetan.
- %10eko deskontua 100€tik gorako erosketetan.

### NATURALKI BELARDENDA-EKODENDA

- %5eko deskontua produktu guztietan.

### URRIKE LIBURU-DENDA

- %5eko deskontua liburuetan
- % 10eko deskontua papergintzan

### LA PERLA

- %15eko deskontua forman jartzeko talaso zirkuituan
- %10eko deskontua osasun, lasaitasun eta edertasuneko banakako tratamenduetan

### NAIA GORROÑO HORTZ KLINIKA

- %25eko deskontua garbiketa eta radiografiatan

### HONTZA MUSEOA

- %50eko deskontua sarreretan



 **anboto**  
**kide**

#### **URALDE HORTZ KLINIKA**

- %25eko deskontua garbiketa eta radiografietan

#### **EILEKE**

**Psikologia, neuropsikologia, logopedia eta psikomotrizitatea**

- %15 eko deskontua saio solteetan

#### **TABIRA BITXIDENDA**

- %5eko deskontua 100€ra arteko erosketetan
- %10eko deskontua 100€tik gorako erosketetan

#### **PSIKOLOGIA AMOREBIETA**

- %20ko deskontua zerbitzu guztietan



***Egin zaituz ANBOTOKIDE  
eta baliatu abantailez!***



# Gremioen gida

**Zurgintza**

**leike** aroztegia & diseinua &  
NEURRIRA EGINIKO PROIEKTUAK

www.leikearoztegia.com  
Antso Estegiz, 3 Durango  
Tlf.: 94 681 72 29

**Iturgintza**

**Mallabiena**

M.Z.O. ITURGINTZA - GASA  
BEROGAILUA - ERAIKUNTZA, S.L.

Mallabiena industrigunea, 6  
48215 IURRETA - Tel.: 946 818 862  
mallabiena@mallabiena.com

**Iturgintza**

**Ubide**  
iturgintza

Iturgintza, gasa eta berokuntza

946 030 506 / 625 702 208  
ubide@euskalnet.net  
48200 DURANGO 188 PK.

**Iturgintza**

**UNAI GARAY**  
ITURGINTZA  
BEROGINTZA  
GASA

Instalatzaile baimendua

659 673 790  
unaigaray@yahoo.es

**Zurgintza**

**ATERPE** KROTZAN  
EGUR ERAIKUNTZAK  
TEILATU ETA BARRUKO LANAK

Asier Abendibar 635 74 84 65  
Ander Maiztegi 655 73 75 51  
www.carpinteriaaterpe.com

**Dekorazioa**

**JAIO**barnizatuak

Armairu eta era askotariko  
altzairuen lakadura eta  
guztietako zaharberritzeak  
egiten ditugu

Eitua Industriaidea, 45 Garaia A - BERRIZ  
Tel./Faxa: 946 824 143 - Mug.: 658 758 421  
info@jaiobarnizatuak.com  
www.jaiobarnizatuak.com



**Profesionalik onenak zure zerbitzura!**







## 'John Dealer & The Coconuts'

MUSIKA ABADIÑO :: Otsailak 12

### Rock deskarga Abadiñoko Amaraun Arte Fabrikan

John Dealer & The Coconuts gipuzkoarrek energiaz beteriko rock doinuak aukeztuko dituzte Abadiñoko Amaraun Arte Fabrikan. Urtarrilaren 28an Durangoko Plateruena antzokian kontzertua eman zuten Nevadah taldeagaz batera. Euren doinuetan gehiago sakontzeko aukera izango dute domeka honetan, beraz. Kontzertua

13:30ean hasiko da, eta sarre-rak 7 euroan erosi ahalko dira (5 euroan, aurrez erosiz gero). Orintsu, apirilera bitartean emango duen zikloa aurkeztu du Amaraunek: Lo modern clown ikuskizuna martxoaren 10ean, Lukiek martxoaren 12an, Willis Drummond martxoaren 19an eta Dube apirilaren 16an.

### Otsailaren 10ean

#### ABADIÑO aurkezpena

**Mamadou Diaren '3052' liburuaren aurkezpena** (Itziar Larrinaga), 19:00etan, Isioturen lokalean.

#### BERRIZ antzerkia

**'La fábula de la ardilla' (La Baldufa)**, 17:00etan, Kultur Etxean.

#### DURANGO berbaldia

**'Del móvil a la placa de cocina, tecnología del día a día' (Hizlaria: Edu Ogando fisikaria-EHU)**, 18:30ean, liburutegian.

#### ELORRIO bertso musikatuak

**'Anonyme Popular' (Igor Elortza eta Rafa Rueda)**, 20:00etan, Arriola antzokian.

#### IURRETA antzerkia

**'Vida', (Javier Aranda konpainia)**, 19:00etan, Ibarretxe kultur etxean.

#### IURRETA bertsoak

**Iruri Altzerreka, Unai Foruria, Iker Garitagoitia, Irune Basagoiti eta Peru Irastortza**, 19:30ean, Abadetxean. Gai-jartzailea: Ander Elorriaga.

### Otsailaren 11n

#### ABADIÑO txapelketa

**XXXIII. Burduntziko Bildots Txapelketa**, 09:00etan, Probalekuaren alboan. Ondoren, bazkaria.

#### BERRIZ antzerkia

**'Loba' (Teatro del Navegante)**, 19:00etan, Kultur Etxean.

#### DURANGO antzerkia

**'Man Up' (Teatro In Vilo & Centro Dramático Nacional)**, 19:00etan, San Agustin kulturgunean.

#### ZORNOTZA antzerkia

**'Urtxintxaren fabula' (La Baldufa)**, 17:30ean, Zornotza Aretoan.

#### ZORNOTZA kontzertua

**Zorber Fest: Arene 6 + PVBIC Enemy + Kristonak**, 18:30ean, Zubiondo parkean.

### Otsailaren 12an

#### ABADIÑO txitxiburduntzia

**Txitxiburduntzia**, 11:00etan hasita, Gazteluko San Martin ermitan. Txorizoa edo urdaia eskainiko dute ogiagaz batera, bost euroan. Otzara bat zotz egingo dute.

#### Txorizoa eta ogia banatuko dute Zelaietako Herri Eskolan ere

12:00etatik 14:00etara, Guraso Elkarrean antolatuta.

#### ATXONDO txitxiburduntzia

**Txitxiburduntzia**, 13:00etan, Topen, Atxondoko Herri Eskolako Guraso Elkarrean antolatuta. 10:30ean ipini dute ordua,

Apatako plazan. Sua Guraso Elkarrean egingo du. Ogia ere eurek ipiniko dute.

#### DURANGO antzerkia

**'Katagorriaren fabula' (La Baldufa)**, 18:00etan, San Agustin kulturgunean.

#### DURANGO txitxiburduntzia

**Txitxiburduntzia**, 18:00etan, Herria tabernaren aurrean.

#### Basokoipetsu Eguna

Tabira Jai Batzordeak antolatuta: Mendi buelta, 09:30ean, Tabirako ermitan. Ondoren, txitxiburduntzia. Sua Jai Batzordeak egingo du. Makilak eta edariak ere eurek ipiniko dituzte.

#### Txitxiburduntzia

12:00etan Madalenako plazan. Txorizoa, ogia eta ardoa euro batean. 09:00etan Durangoko inguruetatik ibilaldia.

#### ELORRIO antzerkia

**'Arrainak bihotzean' (Mar Mar)**, 17:00etan, Arriola antzokian.

#### IURRETA txitxiburduntzia

**Txitxiburduntzia**, 17:00etan, Aita San Migel plazan.

#### IZURTZA txitxiburduntzia

**Txitxiburduntzia**, eguerdian, plazan. Edaria eta sua udalaren kontu.

### Otsailaren 15era bitartean

#### DURANGO lehiaketa

**Ourdaybi mendi film lehiaketa.** Lanak *ourdaybi.mendifilm@gmail.com* helbidera bidali daitezke.

### Otsailaren 17an

#### BERRIZ desfilea

**Mozorro desfilea**, 11:00etan, herriko kaleetan. Ondoren, erakustaldia, Berrizburun. Euskal Diskofesta, 18:30ean, frontoian.

#### ELORRIO antzerkia

**'Hondamendia' (Artedrama)**, 20:00etan, Arriola antzokian.

#### IURRETA antzerkia

**'Pintto Pintto' (Anita Maravillas)**, 17:00etan, Ibarretxe kultur etxean.

#### ZORNOTZA antzerkia

**'Urteak bete, abentura bizi!' (Pirritx, Porrotx eta Marimotots)**, 17:15ean, Zornotza Aretoan.

#### ZORNOTZA antzerkia

**Perubeleren aurkezpena**, 19:00etan, Zelaietatik Zubiondora.  
**Sagardoa eta txorizoa**, 19:30ean, Zubiondoko karpan.  
**Gora Herria**, 20:00etan, Zubiondoko karpan.

## Zinema

### :: Berriz KULTUR ETXEAN

• **Lobo feroz**  
barikua 10: 19:30  
domeka 12: 19:00

### :: Durango ZUGAZA ZINEMA

• **Los Fabelman**  
barikua 10: 19:00  
zapateria 11: 18:00 / 21:00  
domeka 12: 16:45 / 19:00  
astelehena 13: 18:00  
martitzena 14: 19:00  
eguztzena 15: 19:30

### • La niña de la comunión

barikua 10: 19:00 / 21:00  
zapateria 11: 17:00 / 19:00 / 21:00  
domeka 12: 16:45 / 19:30  
astelehena 13: 18:00 / 20:15  
martitzena 14: 18:00 / 20:15

### • Titanic (3D)

barikua 10: 18:30  
zapateria 11: 16:30 / 20:15  
domeka 12: 18:00  
astelehena 13: 18:30  
martitzena 14: 18:30  
eguztzena 15: 18:30

### • El barbero de Sevilla (opera)

eguztzena 15: 20:00

### :: Elorrio ARRIOLA ANTZOKIA

#### • Decision to leave

zapateria 11: 20:00  
domeka 12: 20:00  
astelehena 13: 20:00

### :: Zornotza ZORNOTZA ARETOA

#### • La Ballena

barikua 10: 20:00  
domeka 12: 20:00  
astelehena 13: 20:15

#### • Kung Food

domeka 12: 17:00

#### • Suro

martitzena 14: 20:15



ANBOTOkoko agendan ezer iragarri gura baduzu, idatzi [agenda@anboto.org](mailto:agenda@anboto.org) helbidera edo deitu **946 232 523** telefonora, eguztzen eguerdia baino lehen.

# Oholtza gainean generoei buruzko eztabaida eta hausnarketa sustatu gura dituen 'Man up' taularatuko dute San Agustinen

Zapatuan izango da emanaldia, hilak 11, 19:00etan; Andrea Jiménez eta Noemi Rodríguez dira Teatro En Vilo konpainiaren 'Man up' obrako zuzendariak



'Man up'.

**ANTZERKIA • A. M.**

Bulkada batetik sortu zuten Andrea Jimenezek eta Noemi Rodríguezek *Man up* antzezlan. Generoari buruzko eztabaida eta hausnarketa sustatu gura zuten, baina beste ikuspuntu batetik. "Aurretik gizonzkoekin lanik egin bakoak ginen

eta proiektuan sakondu ahala zer egin gura genuen ikusten joan ginen. Generoari buruz hausnartzeaz mendeko honetako gairik korapilatsuenetarikoa dela uste dugu eta antzezlan hau horri buruz hausnartzeko modua zen. Generoari eta feminismoari buruz gogoeta

egin gura genuen, baina emakume biren ikuspuntu hutsa ez zen angelu batetik", azaldu du Jimenezek. "Ez dugu gure esperientzia propioetatik soilik sortu antzezlan hau. Gizonezkoekin lan egin dugu oraingoan, eta antzezlan lantzerakoan elkarguneak topatu ditugu.

Hortik ekin diogu obrari, elkargune horietatik", gaineratu du. Lan egiteko modu horrek emaitza ere eragina izan duela azpimarratu dute zuzendariak. "Ikuskizun beraren barruan lengoai pila erabili dugu, gaiak ere horrela eskatzen zuelako. Gai zabala da eta antzerkiak eskain-

tzen dituen erreminta guztiak erabili gura genituen", adierazi dute.

Zazpi aktore igoko dira taula gainera Jimenez eta Rodríguez barne, zuzendariak izateaz gainera aktoreak ere badira eta: Fernando Delgado-Hierro, Pablo Gallego, Alberto Jo Lee, Juan Paños eta Baldo Ruiz. "Deseraikuntza bat egin dugu, zelanbait esanda, maskara joko bat. Generoaren ideia eraikuntza sozial inposatu lez ulertzen dugu; antzezlanean 'gu'-a agerian geratuko da, maskarak kendu ahala", nabarmendu dute. *Man up* 2019ko abenduan estreinatu zuten eta ordutik dozenaka emanaldi izan ditu konpainiak. Espainiako Antzoki Sare Nazionalak bere gomendioen artean aukeratu zuen eta Max sarietarako izendapen bi ere jaso zituen.

Antzerkia hausnarketarako gune lez aldarrikatu dute zuzendariak. "Antzerkia topagune bat dela ulertzen dugu, foro bat. Geroago eta gatzagoa da gatazkara heldu barik eztabaidatzea. Galderak egitea ona da eta guztiak ez dute zertan erantzun bat eduki; uste dugu toki ona dela ulertzen ez dugun hori guzti hori", gehitu du Jimenezek. "Amairan ikusleek obrari buruz baino gehiago, gaiari buruz berba egitea gura genuke", borobildu du Rodríguez.

## Bizitzaren zikloak azpimarratzen dituen 'Vida' txotxongilo ikuskizuna, lurretan

lurretako Antzerkia Bultzatuz egitarauaren barruan lehenengo hitzordua izango da, gaur, 19:00etan



Javier Aranda da 'Vida'-ko zuzendaria.

**ANTZERKIA • A. M.**

Bikote bat maitemindu egiten da. Ume bat dute. Hazitakoan, umea badoa etxetik. Bikotea, oster, bakarrik geratzen da eta elkarren ondoan zahartzen dira biak. Pertsonaiak behin eta berriro jaio, hazi, ugaltu eta hiltzen dira; bizitzaren zikloa errepikatzen dute *Vida* antzezlanean. Hain zuzen ere, denboraren joan-etorri hori islatu gura du Javier Arandak bere obra honetan. Eta hori txotxongiloen mugimenduekin egiten du, esku biek eta eskuekin sortzen duen unibertso eta emozioekin.

Javier Aranda aktorea eta txotxongilolaria da. Zaragozako (Espainia) Antzerki Eskolan ikasi zuen eta orain hamarkada bi baino gehiagotik dabil lanean. Besteak beste, Teatro del Temple, Argbolé, eta Gayarre konpainietan lan egin du eta hainbat film luze eta laburretan parte hartu du. Konpainia propioa 2015ean sortu zuen, aktore eta objektu manipulatzailerak uzartzeko. *Vida* lanak tamaina txikiko ikuskizun onenaren saria jaso zuen 2018an.

<p>ANTZERKIA BULTZATUZ IBERNETXE KULTUR ETXEA</p>		
<p><b>vida</b></p> <p>19:00</p> <p>"VIDA"</p> <p>JAVIER ARANDA</p> <p>ITSALAK 10 FEBRERU</p>	<p><b>V PINTTO PINTTO</b></p> <p>17:00</p> <p>"PINTTO PINTTO"</p> <p>ANITA MARVELLE</p> <p>ITSALAK 17 FEBRERU</p>	<p><b>ENZO KOBEL</b></p> <p>17:00</p> <p>"ENZO KOBEL"</p> <p>ESKARAZ</p> <p>MARTXOA 10 MARTE</p>
<p><b>LA REINA DEL ARGA</b></p> <p>19:00</p> <p>"LA REINA DEL ARGA"</p> <p>ESKARAZ</p> <p>MARTXOA 17 MARTE</p>	<p><b>BATETIK BESTERA</b></p> <p>17:00</p> <p>"BATETIK BESTERA"</p> <p>BIBIETAN 30</p> <p>MARTXOA 10 MARTE</p>	<p><b>ARRANOPOLA!</b></p> <p>19:00</p> <p>"ARRANOPOLA!"</p> <p>ESKARAZ</p> <p>MARTXOA 10 MARTE</p>

Sarrera gehiagorik - Gertaldienak hartzeko barretxe kultur etxean.



Pubic Enemy.

## Punk doinuak nagusi Zornotzako Zorber jaialdiaren lehenengo edizioan

Pubic Enemy, Arene 6 eta Kristonak taldeek kontzertua emango dute, 18:30ean

### MUSIKA • A. M.

Zor Ber elkarteak antolatuta, musika jaialdia egingo dute zapatuan Zornotzan, Zubiondo parkean, 18:30ean hasita. Arene 6, Pubic Enemy eta Kristonak taldeek joko dute kontzertua. Arene 6 bizkaitarrak dira, Algortakoak, eta Bereiziezinak diskoa kaleratzekotan dira; TAE diskoetxeagaz kaleratu dute. Street punk eta Oi! doinuak jorrazten dituzte, eta talde gaztea izan arren kontzertu ugari eman dute; besteak beste, Brigade Loco, La Inquisición, Crim eta Rotten XIII, eta Iheskide elorriarrekin. Punk

doinuak jorrazten dituzte; baita Pubic Enemy taldeak ere; Alexek, Giovannak, Irenek eta Nidiak osatzen dute taldea. Madrildarrak dira

**Pubic Enemy, Arene 6 eta Kristonak taldeek joko dute, zapatuan, 18:30ean hasita**

eta oraintsu *Bad Blood* lan laburra kaleratu dute. Diskoteketako *Flying free* abesti klasikoaren bertsioa ere grabatu dute.

Eskean Kristo rock talde ezagunaren errautsetatik jaio den taldea da Kristonak. *Ahobete* hortz lanagaz aro berri bat hasi gura izan dute. Etapa berria hasi arren, talde arratiarrak bere izaerari, estiloari eta rock doinuei etsi die, eta hori nabaria da zuzenekoetan eta zortzi kantuz osaturiko *Ahobete* hortz diskoan. Nevadah taldeagaz joko dute martxoan, Doka eta Jimmy Jazz aretoetan. Jaialdia doakoa izango da eta kontzertuak Zubiondo parkean ipinitako karpan izango dira.

## Larrinagak '3052' liburua aurkeztuko du Abadiñon

Gaur izango da aurkezpena, Abadiñoko Isiotu elkartearen, 19:00etan; Itziar Larrinagak euskaratu du liburua

### LITERATURA • A. M.

Mamadou Dia senegaldarrak Dakarretik Murtziara egindako bidaiaren testigantza batzen du 3052 liburua; hain zuzen ere, horixe da hiri biak banatzen dituen kilometro kopurua. Europara heltzea lortuz gero, bidaiaren nondik norakoak liburu batean kontatuko zituela berba eman zuen Diak, etxekoek eta lagunek jakiteko zelako bidaia izan zen. Esan eta egin. Itziar Larrinaga abadiñarrak Dia ezagutzeko aukera izan zuen orain urte batzuk, baita

bere istorioaren berri izateko eta liburua ezagutzeko ere. Diak bizitakoak hemen ere ezagutzea garrantzitsua izan zitekeela-koan, liburua euskaratu zuen. "Horrelakoak gizarteratzea garrantzitsua da. Guk gure kultura eta gure ingurua ezagutu ditza-kegu, eta horri eskerrak ingurua ulertu. Baina horiek bakarrik ezagututa, gatz egiten zaigu besteak ulertzea", adierazi du Larrinagak. KCD GKEagaz batera kaleratu du liburua, Cine Invisible jaialdiaren barruan.



Itziar Larrinaga '3052'-ren ale bat esku artean duela.

## Gai librea

### Erantzunari galdera

Urtarrilak 26 zituen. Urteko lehen 25 egunak lasai antzean joan ziren, Berrian izenburu hau irakurri nuenera arte: "Ezker abertzalea izan da lehena GKS isilarazteko lanean". Kolpean irakurtzeko gogo sartu zitzaidan, nori ez zaio sartuko ba! Gainera, elkarrizketatua ezagututa, zer esan zuen irakurtzeko gogo eta jakin-mina piztu zitzaidan. Irakurri nuenean zer irakurri nuen erabat barneratu barik geratu nintzen, eta banekien Twitter mundu zoriontsuan indiferentzia izan ezik beste egoera emozional guztiak aurkituko nituela. Beraz, bertara sartu nintzen, jendearen iritziak irakurtzeko.

Elkarrizketatzailearen lana deitoratu eta kritikatu zuten askok. Sarri jarri naiz pentsatzen harrezkero. Elkarrizketatuak esandakoek zerikusia handia



Igor Galarza Intxausti  
Kazetaria

### Galderak sarri eginak daude tranpan erortzeko eta galdera egiten duenak gura duen lekuan kokatzeko

dute galderen bilakaeran. Hain justu, hurrengo egunean Ibai Iztuetak emandako berbaldi batean esan zuen esaldi batek inkontzienteki bete-betean jo zuen gaian: "Galderak sarri eginak daude tranpan erortzeko eta galdera egiten duenak gura duen lekuan kokatzeko". Eta hori gertatu zela uste dut.

Eta argi! Tranpa egiten duena ez da beti tranpatia. Galderen egokitasunari buruzko debetari ekiteko, jakin behar dugu nork jo zuen norengana, eragileak hedabidera ala hedabideak eragilerak. Edozelan ere, elkarrizketaren lehen zatian elkarrizketatuari interesatzen zitzaion edukia lantzeko abagunea eskaintzen zion. Egia da elkarrizketaren

azken zatian gai ugari aipatu zirela, zeintzuetan GKS-k konfrontazioak dituen. Hor dago komunikatiboki zer zabaldu gura den jakitearen garrantzia. Elkarrizketatuak esperientziarik ez badu ere, helburuak bereziki ondo finkatuta izan behar dituela deritzot, eta hori bere inguruko laneketa bat da, alor komunikatibokoena.

Berriaren guraria izango balitz elkarrizketa hori egitea, galderari ez erantzutea errazagoa litzateke beharbada. Futbola adibide: Polemika bat badago, kazetariak futbolariari galdera egingo dio, eta futbolariak ez badu ezer ere esan nahi ez du esango, eta esaten badu aurretiaz dagoen komunikazio laneketa baten akatsa da. Baina badut ustea (baliteke erratuta egotea) GKS-rena zela guraria, eta orduan datorrenari erantzun behar. Nork egin duen gaizki? Ez dakit. Nork ekidin zezakeen egoera? Badakit.



**Iker Salazar Ortega**

Zornotza saskibaloitaldeko jokalaria

LEIOA | 1993

## “Estatistikei ez diet arreta berezirik ipintzen, baina ilusioa egiten du apurka bidea egiten nabilen erakusgarri delako”

Iker Salazar Zornotza STko historiara pasatu da. Beste inork baino gehiago jokatu du kamiseta berdeagaz: 6.000 minuturen langa gainditu berri du. Etapa bitan, zortzigarren denboraldia osatzen dabil klubean

### SASKIBALOA • J.D.

**Zornotza zure bigarren etxea dela esatea ez da astakeria izango.**

Gustura nago hemen. Etxean baino denbora gehiago ematen dut hemen. Taldekideak baino gehiago, lagunak dira. Gainera, Mikel [Garitaonandia, entrenatzailea] aspalditik ezagutzen dut. Badaki zer eman dezakedan. Oso ondo ezagutzen nau.

**Zornotzagaz gehien jokatu duen jokalaria zara: 6.000 minutu. Horrelako estatistikei arreta ipintzen diezun horietakoa zara?**

Egia esan, ez diet arreta berezirik ipintzen, baina ilusioa egiten du, apurka bidea egiten nabilen erakusgarri delako.

**Eta klubaren historian sartu zara.**

Hori bai, kopuru horretara hel-

du den bakarria izatea itzela da. Gauzak ondo egiten nabilela eta klubak nigan konfiantza izaten jarraitzen duela erakusten du.

**“Hemendik urte batzuetara, perspektibagaz begiratzean, orduan konturako gara benetan zer egiten gabiltzan”**

**Hainbat postutara moldatzeko gaiden jokalaria ei zara. Gaur egun non jokatzeko duzu gehien?**

Hegaleko pibot postuan. Egia esanda, nire ibilbidean postu guz-

tietan jokatu dut. Hasieran joko antolatzailea nintzen. Urteak joan eta abiadura apur bat galdu ahala, barrurago jokatzeko hasi naiz. Jokalari garaia naizenez eta pisu apur bat irabazi dudanez, aldaketa hori egin ahal izan dut. Gainera, eroso sentitzen naiz borroka horretan, gustatzen zait. **Beraz, polibalentea izatea bertute bat izan da zure kasuan.**

Bai. Kontua da gaur egun oso dohain espezifikoak bilatzen direla: oso ondo jaurtitzen duen bat, errebotean espezialista den bat... Gaur egungo saskibaloian denerako balio duen jokalaria izatea ez dakit ona ala txarra den. Baina nire kasuan balio dit, behintzat, eta ez zait batere kostatzen. Badakit postu bakoitzak zer eskatzen duen eta, tira, denetan ere txukun moldatzen naizela esango nuke.

**Jokoa bera hobeto ulertzen lagundu izan dizu?**

Dudarik barik. Europa kanpotik datozen jokalariek asko hutsunerik handiena da ez dutela hemengo saskibaloia ikusten eta ezagutzen. Fisikoki indartsuak eta talentu handikoak izan daitezke, baina hemengo jokoa interpretatzen ikasi ezik galduta zaude.

**30 urte egingo dituzu aurten. Epe ertainera begira, Zornotza STn ikusten duzu zeure burua?**

Ogibidearen barruan dago kontua. Osakidetzak lan poltsa zabalatzeko zain nago lanean hasteko.

Hori gertatzen denean, ikusi egin beharko dut lana eta saskibaloia uztartu ditzakedan. Posible bada, gorputzak eutsi arte jarraituko dut saskibaloian; bestela, utzi egin beharko dut.

**Eta beste saskibaloit alderen batek eskaintza tentagarriren bat egiten badizu?**

Tira, gertatuko balitz pentsatuko nuke, baina ez dut uste horrelako eskaintzarik helduko denik. Oso gatxa da. Gainera, gauza asko baloratu beharko nuke. Kanpoan bizitzea merezi duen, eta abar.

**“Gaur egungo saskibaloian denerako balio duen jokalaria izatea ez dakit ona ala txarra den. Baina nire kasuan balio dit”**

**Zornotza ST Zilarrezko Ligara lehenengo igonean, zu talde hartan zeunden. Iaz, bestalde, Zilarrezko Mailako Kopa irabazi zenuen. Momentu bietatik zein aukeratuko zenuke?**

Biak betiko gordeko ditudan momentuak dira, baina, bat aukeratzekotan, igoera. Gogoan dut lan txukuna egiteko helburuagaz joan ginela finalera. Helburu handirik barik. Igoera ezusteko galanta izan zen, eta momentu

hunkigarria denontzat. Talde hartatik Mikelek eta biok baino ez dugu jarraitzen.

**Harrezkero Zornotza STk hamar-kada bat darama Zilarrezko Ligan. Oraintsu, 20.000 puntura heldu da maila honetan. Honek guztiak zer esan gura du klubarentzat?**

Talde txiki eta umil bat hainbeste denboran Zilarrezko ligan egotea datu ikaragarria da eta lan handia egin den seinale. Gainera, Urrezko Ligara igotzeko borrokan ibili da sarritan. Urrunera joan beharrik barik, begira azkeneko hiru denboraldiak; lehenengoan, Urrezko Ligara igotzeko finala jokatu genuen; hurrengoan, finalerdia heldu eta Kopa irabazi genuen; eta aurten hirugarren goaz. Hemendik urte batzuetara, perspektibagaz begiratzen dugunean, orduan konturatuko gara benetan zer egiten gabiltzan. Ez genuke segurutzat jo behar Zornotza ST azken hamarkada honetan lortzen dabilena. Gauza onera azkar ohitzen gara, baina meritu handia du.

**Aurten zein da helburua?**

Non gauden ikusita, play offetara sailkatuko gara, seguru. Hirugarren gaude eta zortzi sailkatzen dira. Gero, kanporaketa bat gainditzea behintzat espero dut. Eta finalerdietara heltzea ere bai, iaz egin genuen moduan. Hortik aurrera, ikusi egin beharko da, talde indartsuak daudelako eta oso maila exigentea delako.

## Tabirako Baquek segidako hamargarren garaipena lortu dezake asteburuan

Azarotik honako partidu guztiak irabazi ditu eta sailkapeneko bigarren tokian kokatu da



Tabirako Baqueko jokalaria urdinez, Araskiren kontrako partiduan. IRENE BARRENETXEA

### SASKIBALOA • J.D.

Iazko azaroaren hasieran Unibasket Logroñoren kantxan galdu zue- netik hona, Tabirako Baquek bederatzigarren garaipen kateatu ditu. Araski taldea izan zen durangarren aurrean burua makurtu behar izan zuen azken aurkaria, joan zen asteburuan: 63-74. Eta Gasteizko taldea ez da edonor, Lehenengo Nazional Mailako talderik indartsuenetarikoa baino. Araski sailkapeneko bigarren tokian zegoen Tabirakoren aurka jokatu aurretik; orain, Durangoko klubarena da postu hori. Tabirakok lehenengo laurden

bietan oinarritu zuen garaipena: 14-23/31-40. Hirugarren laurdenean 11 puntu baino ez zituen sartu (47-51), baina azkenengoan mailarik onena erakutsi zuen berriro. Gorane Urainen 15 puntuak garrantzitsuak izan ziren garaipenerako.

Azarotik honako bolada onean mota guztietako garaipenak eskuratu ditu taldeak: alde handiagaz irabazitakoak —73-49, La Salleren aurka— eta azken segundora arte borrokatu beharrekoak —68-69, Ibaetaren aurka—. Datorren domekan

Afilados Gasteiz Araba taldearen aurka jokatu dute, etxetik kanpora.

### Gizonak, zulotik irteten

EBA mailan dabilen gizonen taldeak ere garaipena eskuratu zuen joan zen asteburuan: 60-73, Aspasia Real Valladoliden kantxan. Garaipen honeguz —bigarrena jarraian— sailkapenean gora egin eta hamaikagarren tokian dago orain. Apurka zulotik irteten dabilta. Domekan, 12:00etan, Santurtzi taldea hartuko dute Landako kiroldegian.

## Binakako txapelketako partidu erabakigarri bi, Durangon

Ainhoa Ruiz de Infante otxandiarra eta Oihana Orbegozo txapelketako laugarren garaipenaren bila irtengo dira Durangoko San Fausto pilotalekura zapatu arratsaldean



Ruiz de Infante eskumatik hasita lehenengo. ADOS

### PILOTA • J.D.

Durangaldeak Ados elkarteko binakako esku pilota txapelketako beste jardunaldi bat hartuko du. Otxandioko eta Izurtzako jaialdien ondoren, zapatu honetan Durangoren txanda izango da. San Faustoko pilotalekuak partidu bi hartuko ditu, 18:00etan hasita. Sarrera doakoa da.

Ainhoa Ruiz de Infante otxandiarra izango da protagonistetarikoko bat. Oihana Orbegozok eta biek Andrea Aldaregia eta Ane Mendiburu izango dituzte aurkari. Beste partiduan Zabaleta-Agirre eta Iturriaga-Galeano bikoteek neurtuko

### Ruiz de Infante eta Orbegozo final-laurdenak jokatzeko sailkatuta daude, partidu biren faltan

dituzte indarrak. Ruiz de Infante eta Orbegozok bostetik hiru partidu irabazi dituzte orain arte eta final-laurdenetan izango dira. Partidu biren faltan, laugarren daude sailkapenean eta bigarren geratzeko borrokatuko dira; aurreneko biak zuzenean sailkatzen dira finalerdietarako.

## Jokaldia

### Berritu ala hil

Gizartearen erritmoari eusteko “berritu ala hil” besterik ez dagoela esan ohi da. Izan ere, atzean ez geratzeko helburuarekin, gauza tradizionalenak ere aro berrietara egokitu izan dira.

Esku pilota izan daiteke horren adibide. Azken hileotan berrikuntzak ikusi ditugu zenbait jaialditan eta, kasuotan gertatu ohi den eran, aldeko zein kontrako iritziak gurutzatu dira pilotazaleen artean.

Abendutik hona Zornotzan jokatu diren hiru jaialdiak izan daitezke transformazio horren erakusgarri. Adibidez, etenaldi luzeak aprobetxatuz, zaleen artean sariak banatu ziren zozketen bitartez. Horrez gain, hainbat jolasetan parte hartzeko aukera ere izan zuten bertaratutako pilotazaleek. Hori gutxi ez eta, partiduak amaitu



Iñaki Iza Zarazua  
Pilotari ohia

### Berrikuntzak ikusi ditugu zenbait jaialditan eta aldeko zein kontrako iritziak gurutzatu dira pilotazaleen artean

ondoren, zaleek pilotariekin argazkiak ateratzeko gunea ere jarri zuten. Hauek denak DJ eta esatari batek giro-tuta egin ziren, hutsarteei bizitasuna emanez.

Bide batez, jende gaztea ere erakarri zuten ekimen hauek. Izan ere, kasu askotan, pilotalekuko gazteenek nahia- go dute Altunaren kamisetarekin edo sinatutako pilota batekin etxera joan, amezketarraren magia ikustea baino.

Zornotzako berrikuntzak aurrez ikusitako hainbati gehitu behar zaizkie; besteak beste, frontoietan pantailak jar-

tzeari, palomiten eta saltxitxa-ogitarte-koen eskaintzari, finaletako pilotarien aurkezpenen “amerikanizazioari”, botileroei mikrofonoa jartzeari...

Arestian esan bezala, espektakulu berri honek alde guztietako iritziak ditu. Ni aldeko naiz, 2 ordutik gora irauten duen jaialdiari egungo gizarteak eskatzen duen dinamikotasuna ematen diola uste baitut.

Hala ere, aipatu behar da ideia gehienak eskuzko jaialdietara ekarri aurretik Gernikako zesta-puntako Winter Series torneoan jarri zirela martxan, astelehenero mila pertsonatik gora bildu eta bete-beteko arrakasta lortuz.

Ea, bada, zesta-puntan egin bezala, esku pilotan ere ikuskizunaren aldeko iraultza sarreren prezioetara iristen den, zeren hori baita frontoi askotan bizi den giro triste eta hotza epeltzeko modurik eraginkorrena.

**ETXETXO**  
G. INMOBILIARIA  
F.J. Zumarraga, 11 - 946 814 049 - DURANGO  
www.inmoetxetxo.com

**AMBOTO**  
INMOBILIARIA  
Sanagustinalde, 4 - 1 ezk. - 48200 DURANGO

**ISD** Inmobiliaria del Duranguesado  
Askatasun etorb. 10 • DURANGO • 946 816 886  
www.inmoduranguesado.com  
inmoduranguesado@gmail.com

**Fernando Uribe**  
AGENCIA INMOBILIARIA  
Barrenkalea, 15 behe • DURANGO  
Tel.: 946 816 423 • www.fernandouribe.es


## HERRIKO GUDARIEN



107 m<sup>2</sup>. Erdialdean. 3 logela, 2 komun, sukaldea, eskegitokia eta egongela terrazarekin. Ganbara. Garajea eta trastelekua.

**350.000 € C.E.E:E**

## OTXANDIO



160 m<sup>2</sup>. Lehenengo solairua. Berriztatua. 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Beheko solairua etxebizitzarekin bat egiteko aukerarekin, txokoa edo garajea.

**110.000€ C.E.E:F**

## KANPATORROSTETA



Erdialdean. Eguzkitsua. Handia. 3 logela, 2 komun (bat dutzarekin), sukaldea eta egongela. Balkoia eta 32 m<sup>2</sup>-ko terraza handia. 11 m<sup>2</sup>-ko ganbara. Solarium komunitarioa.

**245.000€ C.E.E:E**

## MATIENA



Etxebizitza berria tasatua. 2 logela, komuna, sukaldea, eskegitokia eta egongela. Terraza. 6 m<sup>2</sup>-ko ganbara. 29 m<sup>2</sup>-ko garajea. Trastelekua aukeran.

**196.000€ C.E.E:A**

## KIRIKIÑO KALEA



2 logela, komuna, sukalde-jangela eta egongela. Etxe osoak kanpora ematen du.

**110.000€ C.E.E: G**

## DURANGO



4 logela, komuna, sukaldea, egongela eta despentsa - trastelekua. Ganbara komunitarioa. Etxe osoak kanpora ematen du. Eguzkitsua. Bizitzen sartzeko moduan.

**156.000€ C.E.E= G**

## // ETXEBIZITZAK SALGAI

**DURANGO:** Herriko Gudarien kalea.

3 logela, egongela balkoiarekin, sukaldea, despentsa eta 2 komun. Garajea. Trastelekua. Ganbara.

**DURANGO:** Astepe auzunean. 3 logela, egongela, sukaldea, eskegitokia eta 2 komun. Garajea eta trastelekua. Argitsua. Pisu altua.

**DURANGO:** Antso Eztegiz. Izugarritzko adosatua salgai. 3 logela eta 4 komun. Lorategia. Terraza. Txokoa. Ezin hobea.

## ABADIÑO

**ABADIÑO:** Iturritxo kalea. 3 logela, 2 komun, egongela-jangela, sukaldea eta despentsa. Ganbara. 2 garaje eta 2 trasteleku.

## BERRIZ

**BERRIZ:** 2 logela, egongela terrazarekin, sukaldea eta komuna. Garajea eta trastelekua.

**BERRIZ:** 3 logela, komuna eta egongela. Ganbara. Eguzkitsua. Merkea.

**ATXONDO:** 2 logela, komuna, sukaldea eskegitokiagaz, despentsa eta egongela.

## //LURSAILAK SALGAI

**IURRETA:** 5 hektarea inguruko lursaila. Abeletxe bat egiteko aukeragaz. Sarbide ona.

## //BASERRIAK ETA TXALETAK SALGAI

**IURRETA:** Orozketa auzoa. Baserri erdia salgai. Ikuspegi zoragarria. 3.000 m<sup>2</sup>-ko lursailarekin. Durangotik oso gertu.

**BERRIZ:** Andikona auzoa. Baserri ikusgarria, berriztatzeko. Teilatua eta estruktura eginda. Ikuspegi ederrak. 7 hektareako lursailagaz.

**BERRIZ:** Eitua auzoan. Baserri ederra. Berriztatzeko. Lursail ederra inguruan. Kokapen eta ikuspegi politik.

**ATXONDO:** AXPE. Baserri ederra salgai. Berriztatzeko. Kokapen izugarria

**ATXONDO:** ARRAZOLA. Izugarritzko baserria salgai. 40.000 m<sup>2</sup>-ko lur saila. Berriztatzeko.

**MAÑARIA:** 3 solairuko etxe ederra. Herri erdian. Udaletxe ondoan. 160 m<sup>2</sup> solairu bakoitzean. Aukera ederra Mañaria erdian bizitzeko.

**MENDATA:** Lamikiz auzunea. Bizitza biko baserria. Berriztatzeko. Eguzkitsua. Prezio interesgarria.

**DURANGO:** Adosatu ederra, izkinakoa. Guztiz jantzita. Estreinatzen.

## //BULEGOAK ALOKAIUAN

### ABADIÑO

30 m<sup>2</sup>-tik gorako bulegoak. 350 €-tik hasita. Argia eta wifia barne.

### //GARAJE ITXIAK SALGAI

Durango, garaje itxiak salgai 25.000 €-tik aurrera.

### //LOKALAK ALOKAIUAN

Alde Zaharrean, hainbat tamainatako lokalak alokairuan. Etorri eta galdetu.

## www.inmoduranguesado.com

### DURANGO




62 m<sup>2</sup>

2 logela

**MUSIKO ALTUNA:** 62 m<sup>2</sup> (eraikita). Egongela, sukaldea (jantzia), 2 logela, eta komuna. Balkoia. Etxe erdiak kanpora ematen du (hegoaldea). Leku onean kokatua, zonalde berdeak eta zerbitzueguneak gertu. 2.022. urtean berriztatua.

**145.000 € C.E.E: F**

### DURANGO



98 m<sup>2</sup>

3 logela

**UNTZILLATX:** (1.997. urtean eraikia). Egongela, sukaldea, 3 logela eta 2 komun. Balkoia. Etxe erdiak kanpora ematen du (ekialdea). Leku onean kokatua, zonalde berdeak eta zerbitzueguneak gertu. 6 m<sup>2</sup>-ko ganbara. Egoera onean dago baina berrikuntza batzuk behar ditu.

**250.000 € C.E.E: F**

### DURANGO



86 m<sup>2</sup>

3 logela

**ASKATASUN ETORBIDEA:** (2.012 urtean eraikia). Halla, egongela, sukalde jantzia, 3 logela eta 2 komun. Balkoia. Etxe erdiak kanpora ematen du (ipar-hegoaldea) Leku onena kokatua. Zonalde berdeak eta zerbitzueguneak. 22,4 m<sup>2</sup>-ko garajea eta 8 m<sup>2</sup>-ko ganbara. Bizitzen sartzeko moduan.

**320.000 € C.E.E: Bidean**

### MATIENA



57,27 m<sup>2</sup>

2 logela

**TRANAPADURA:** Etxebizitza tasatua. Halla, egongela, sukalde jantzia, 2 logela, komuna eta galeria. Etxe osoak kanpora ematen du (mendebaldea). Argitsua. Leku onean kokatu. Herriguneko sarrera eta irteeratik gertu. Ganbara eta garajea. Ezin hobea. Trastelekuarekin + 5.200 €.

**189.000 € C.E.E: E**

### MATIENA



89 m<sup>2</sup>

3 logela

**TRANABARREN:** : 1.987. urtean eraikia. Halla, egongela, sukalde jantzia, 3 logela eta 2 komun. Balkoia eta 38m<sup>2</sup>-ko terraza. Etxe osoak kanpora ematen du. (hego-mendebaldea): Argitsua. Leku onean kokatua. 12 m<sup>2</sup>-ko trastelekua. Egoera onean dago baina berrikuntzak behar ditu.

**229.000 € C.E.E: F**

### MATIENA



**ERAIKUNTZA BERRIA:** 91,05 m<sup>2</sup>-tik aurrera. 3 eta 4 logela. Kalitate oneko materialak. Garajea eta trastelekua barne. Estreinatzen.

**254.900 €-tik aurrera**

## //DURANGO

**ANTSO EZTEGIZ:** 3 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. Balkoia. Igogailua. Garaje itxia aukeran.

**180.000 € / E.E.Z=E**

**ANTSO ESTEGIZ:** 2 logela, sukaldea balkoiarekin, egongela eta komuna. Trastelekua eta igogailua. **192.000€ / E.E.Z= F**

**ASKATASUN ETORBIDEA:** 3 logela, sukaldea, egongela, despentsa eta 2 komun. Igogailua. Garajea eta trastelekua. **320.000 € / E.E.Z=E**

**ASKATASUN ETORBIDEA:** 3 logela, sukaldea eskegitokiagaz, egongela eta 2 komun. Igogailua. Garaje itxia. **LEHEN 280.000€ ORAIN 250.000 € / E.E.Z=E**

**JOSEMIEL BARANDIARAN:** Logela, egongela, sukaldea balkoiarekin eta komuna. igogailua. garajea eta trastelekua. **300.000€ / E.E.Z=D**

**BARRENKALEA:** 2 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Igogailua. **145.000 € / E.E.Z=G**

**BARRENKALEA:** Konpontzeko dagoen eraikina. Sotoa, behe-solairua eta 3 pisuko altuera. **350.000 € / E.E.Z=F**

**KOMENTU KALEA:** 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Igogailua. Ganbara. Garaje itxia aukeran. **LEHEN 230.000 € ORAIN 190.000 € / E.E.Z=E**

**SAN FRANZISKO:** 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Garaje itxia. Igogailua onartuta. **195.000 € / E.E.Z=E**

**SANTIKURUTZ KALEA:** Etxebizitza bifamiliarra eraikitzeko 600 m<sup>2</sup>-ko lurzorua. **LEHEN 640.000 € / ORAIN 550.000 €**

**TRENBIDE KALEA:** 5 logela, sukaldea, egongela eta komuna. **LEHEN 175.000€ ORAIN 150.000€ / E.E.Z=F**

## //ABADIÑO

**MUNTSARATZ AUZOA:** Baserria. 2.750 m<sup>2</sup>-ko lur sailarekin. 4 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. Ganbara eta balkoia. **390.000 € / E.E.Z=D**

## //BERRIZ

**BERRIZBEITIA:** 2 logela, sukaldea, despentsa, egongela eta komuna. Balkoia. **100.000 € / E.E.Z=G**

**MURGOITIO AUZOA:** Berreraikitzeneko baserria lurzoruagaz. **290.000 €**

**PADURE:** 3 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. **LEHEN 125.000€ ORAIN 99.300 € / E.E.Z=F**

## //GARAI

**MOMOITIO AUZOA:** Etxebizitza eraikitzeneko lursailak. Aukera ezberdinak.

## //IURRETA

**DANTZARI KALEA:** 2 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Igogailua. **153.000 € / E.E.Z=E**

## //IZURTZA

**ELIZALDE AUZOA:** 4 solairuko etxea. 3 logela, 3 komun, sukaldea, garbitokia eta egongela. Terraza. Lorategia eta garajea. **620.000 € / E.E.Z=E**

## //OTXANDIO

**OTXANDIO**  
**ZELAIETA AUZOA:** Baserria. 40.355 m<sup>2</sup>-ko lursaila. 4 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. Balkoia. **LEHEN 348.000€ /ORAIN 280.000€ E.E.Z=BIDEAN.**

## //GARAJEAK SALGAI

Durango eta Iurretan, aukera desberdinak: garaje itxiak, partzelak eta partzelak trastelekuarekin.

## //BERRIAK

### ALOKAGAI

Etxebizitzak, bulegoak, pabilioiak, lokal komertzialak eta garajeak. Bulegoan galdetu.



## "Probalekua hain beteta ikusterakoan kirolarekiko maitasuna sentitu zitekeen"

Harri jasotze erakustaldi batek gutxitan eman du hainbesteko zeresana Durangaldean. Martins Licisen eta Urdax Magunazelaiaren erronkak aurreikuspenak gainditu zituen



**ABADIÑO • JONE GUENETXEA**

Martins Licis kaliforniarraren eta Urdax Magunazelaia abadiñarraren arteko norgehiagokak ikusmin itzela piztu zuen Abadiñon joan zen asteburuan. Licisek 'Munduko Gizonik Indartsuena' txapelketa irabazita indarra aldean zekarren. Baina harri jasotzea indarra baino gehiago da. Bestalde, Urdax Magunazelaia bere marka hobetu gura zuen, etxean. Biek ala biek bete zuten euren helburua. Licisek, erakustaldi ederra emanda, 252 kiloko harria altxatu zuen. Magunazelaiak 255 kiloko harria birritan jaso zuen.

**Urdax, marka hobetzea lortu duzu. Pozik zaude?**

**Urdax Magunazelaia:** Abadiño nire sorlekua da, abadiñarra naiz, eta, beraz, oso gustura geratu nintzen. 255 kilo jaso nituen eta inoiz altxatu dudan harririk handiena da. Norberaren herrian horrelako publikoa izatea eta plaza beteta ikustea zoragarria izan zen. Etxeko lana lortu nuen, eta, gainera, altxaldi bi egin nituen.

**Espero baino jende gehiago batu zen Abadiñon.**

**U.M.:** Jendea espero nuen, baina ez hainbeste. Norberaren plaza hain

beteta ikusteak oso sentsazio ona eman zidan.

**Jendea espero nuen, baina ez hainbeste. Norberaren plaza hain beteta ikusteak oso sentsazio ona eman zidan**

URDAX MAGUNAZELAIA

**Martins Licis:** Izugarria da hemen egotea. Probalekua hain beteta ikusterakoan kirolarekiko maitasuna sentitu zitekeen.

**Urdax, munduko gizonik indartsuenagaz entrenatzen aritu zara. Zelako esperientzia izan da?**

**U.M.:** Oso esperientzia ona izan da. Gainera, oso mutil jatorra eta umila da. Beragaz entrenatzea gozamina izan da. Bera lako pertsona bat gurgaz entrenatzen egotea eta Euskal Herria eta gure kirolak hainbeste gustatzea oso pozgarria da. Gainera, mundu mailan ezagutarazi gaitu.

**Martins, harri jasotzen ikastea erraza izan da?**

**M.L.:** Nik indar handia daukat; beraz, pisuarena erraza da. Baina teknika oso zaila da. Askoz gehiago praktikatu beharko nuke.

**Munduan leku gutxi dago bertan biziko nintzatekeela esateko modukoak, eta hauxe da horietariko bat**

MARTINS LICIS

**Euskal Herriko kirolak zer iruditu zaizkizu?**

**M.L.:** Euskal Herria eta bere kirolak maite ditut. Munduan leku gutxi dago bertan biziko nintzatekeela esateko modukoak, eta hauxe da horietariko bat. Ez dut hemendik alde egin nahi.

**Zein leku bisitatu dituzu Euskal Herriera etorri aurretik?**

**M.L.:** 'Strong Man' txapelketaren barruan mundu osoan ibili naiz: Filipinetan, Botswanan, Europa osoan, Ameriketara... Baina orain beste indar mota batzuk ezagutu gura ditut. Eta Euskal Herrikoa lehenengoetarikoa da.

**Orain beste herrialde batzuk bisitatu dituzu?**

**M.L.:** Honen ondoren Georgiara joango naiz, pisu altxaketa egitera. Orain, nire lagunak onenagaz youtubeko sail bat sortzen nabil, 'Unknown Strength' deiturikoa. **Beraz, Euskal Herriko bizitakoak bertan ikusi ahalko ditugu?**

**M.L.:** Bai, Instagramen @martinslicis kontua jarraituta eta baita youtuben ere bideo hauek ikusi ahalko dituzue.

**Lau-hortza**

Martin Loizate Sarrionandia



**Gainezka**

Euria atergabe egiten duenean hondeamakina bat agertu ohi da Santa Anako zubiaren albora. Ba omen dagoelako Durangoko alkatearen despatxuko idazmahaiko kajoian karpeta gorri batean protokolo edo instrukzio-liburu bat, zeinak azaltzen duen puntu horretan ibaiak gainezka egin ez gero zubia nola eraitsi. Zeren zubipetik pasatzean estutzen baita ibaia eta Santa Anako plaza Alde Zaharra baino gorago dagoenez zubia bota ezean urak hartuko bailuke Alde Zaharra osorik, eta lokatzak.

Nik ere nahi nituzke behar dudanetan argibideak eskura izan, azkenaldian gainezka egin duten nire baitako errekekin zer egin jakiteko adibidez, ura leporaino heldu aurretik. Horregatik hasi naiz etxean bila eta topatu ditut lehenengo airfryer eta berogailuarenak. Eta gero topatu ditut liburuen apalean kronopio eta famen artean Julio Cortazarrek idatzirik instrukzioak nola eskailerak igo, nola negar egin, nola txingurriak hil, nola abestu, nola erloju bati giltza eman.

Aski ez zaizkidala eta nik ere ekin diot eskuliburu propioak idazteari, xehetasunik txikiak zainduz eta generoak eskatzen duen hizkera zehatz eta konkretuz, egunen batean lagungarri izango zaizkidalakoan: instrukzioak atek zabaltzeko, autobusean irakurtzerakoan esaldi bat zuzen azpimarratzeko, eguraldiaz hitz egiteko, geltokian zain egoteko, ilusioa barrutik eramateko, asilo eskatzeko gau batez...

SAN  
ROKE  
BARRIA

**sukia**  
Zure etxean zaude. Estás en tu casa



Proiektu berria Durangon,  
efizientea eta terraza zabalekin.

INFORMAZIOA

946 46 20 41  
www.sukia.com